

NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko maiatzaren 12a

62. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/PES-00044. Galdera, Prodigioso Volcán enpresak Nafarroa marka sustatzeko Planari buruz eginiko ebaluazio-txostenaren bertsio desberdinen gainekoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-25/PES-00045. Galdera, “Nafarroako ereserkia berrinterpretatzeko koordinazioa” jardueraren adjudikazio-hartzaileari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-25/PES-00046. Galdera, Haur Hezkuntzako lehen zikloaren (0-3 urte) ezarpen esperimentalari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-25/PES-00047. Galdera, Oronoz-Mugairin izanen den Lanbide Heziketako zentroaren beharrianak zehazteko prozesuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-25/PES-00048. Galdera, Nafarroako Gobernuan eta bere erakunde publikoetan gertatu ahal izan diren laneko jazarpen kasuekin lotutako salaketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-25/PES-00049. Galdera, Barañainen eguneko zentro bat eraikitzeko proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-25/PES-00050. Galdera, hiriko hondakin-uren tratamenduari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- 11-25/PES-00051. Galdera, tutoretzapeko zentroetan dagoen sei urtetik beheitik haur-kopuruari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- 11-25/PES-00052. Galdera, itunpeko irakaskuntzaren sektorearekin 2024-2026 aldirako sinatutako akordioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- 11-25/PES-00053. Galdera, Nafarroako Gobernu Irekiaren atarian euskara zuzen erabiltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- 11-25/PES-00054. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Ospitalez kanpoko Larrialdi Zerbitzuko anbulantzietako medikuek eta erizainek arrisku-osagarria jasotzeari uzteko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- 11-25/PES-00055. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak biriketako minbizia hautemateko Cassandra proiektuan parte hartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).

- 11-25/PES-00056. Galdera, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean jasotako zenbait jarduketa betetzeko epeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- 11-25/PES-00057. Galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko langileria-planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (31. or.).
- 11-25/PES-00058. Galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioari eta Hezkuntza Departamentuko ikuskaritzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (33. or.).
- 11-25/PES-00059. Galdera, Nasuvinsaren ekimenez Burlatan abiarazitako etxegabetze-prozedurei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (34. or.).
- 11-25/PES-00060. Galdera, Nafarroako Ubidearen 1. fasean handitutako eremuko alderdi ureztagarriko eremu osagarriak ureztatze aurreikusten diren datei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00044. Galdera, Prodigioso Volcán enpresak Nafarroa marka sustatzeko Planari buruz eginiko ebaluazio-txostenaren bertsio desberdinen gainekoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, Prodigioso Volcán enpresak Nafarroa marka sustatzeko Planari buruz eginiko ebaluazio-txostenaren bertsio desberdinen gainekoa, 2025eko otsailaren 7ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00044); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

PES-00016 galderari emandako erantzunean (haren bidez jakin nahi zen ea Prodigioso Volcán enpresak noiz bidali zuen egindako ekintza estrategikoen emaitzen eta inpaktuaren ebaluazioa,

dagozkien material entregagarriekin), Gobernuak adierazi zuen kasuko txostenaren lehenbiziko bertsioa 2024ko azaroaren 29an aurkeztu zela.

– Zenbat bertsio egon dira?

– Zerk eragin zuen bertsio bat baino gehiago egotea?

Nafarroa Markaren lizitazioaren enpresa adjudikaziodunak garaiz eta behar bezala entregatu zuen pleguan jasotako ebaluazio txostena. Behin edukia analizatu ondoren, Proiektzio Instituzionalaren Zerbitzuak eta Nafarroa Markak beste dokumentu bat egin zuten, egindako beste jarduera batzuk jasotzen dituen, nahiz eta Prodigioso Volcán enpresarekiko ekintza planean jasota ez egon.

Dokumentu hori Nafarroa Markak otsailaren 25ean mahaia eratzen duenean entregatuko da.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 21ean

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-25/PES-00045. Galdera, “Nafarroako ereserkia berrinterpretatzeko koordinazioa” jardueraren adjudikazio-hartzaileari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak “Nafarroako ereserkia berrinterpretatzeko koordinazioa” jardueraren adjudikazio-hartzaileari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 7ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00045); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Nor izan zen “Nafarroako ereserkia berrinterpretatzeko koordinazioa” jardueraren adjudikazio-hartzailea, zeinarengatik 2.541 euro ordaindu baitziren?

Abenduaren 19an 11-24/PEI-00976 informazio eskaerarako emandako erantzunean jasotako hornitzailea, IFZ 72702881L duena.

Zer lan egin zuen? Azalpenak xeheki eta ahal den modurik zehatzenean ematea eskatzen dut.

Laguntza eman zuen proiektua martxan jartzeko, zenbait artistarekin harremanetan jarritzeko, ikus-entzunezko proiektu baten askotariko aldean arteko koordinazioa, baita ere prestatzeko, ekoizteko eta postprodukzioko alderdietan beharrezko aholkuak ematea ere.

Zure kontsultari erantzuteko, abenduaren 19an bidali zen zenbateko hori eta hornitzailearen nahiz fakturatutako lanaren banakapenaren xehetasunak jasotzen dituen dokumentua, 11-24/PEI-00976 ekimenean.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 21ean

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-25/PES-00046. Galdera, Haur Hezkuntzako lehen zikloaren (0-3 urte) ezarpen esperimentalari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Pedro José González Felipe jaunak Haur Hezkuntzako lehen zikloaren (0-3 urte) ezarpen esperimentalari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 7ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak idatziz erantzuteko 11-25/PES-00046 galdera egin du. Hona Hezkuntzako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Arroizko La Balsa HLHIPan, bederatzi neska-mutil daude matrikulatuta bi urteko gelan.

Iruñeko Doña Mayor HLHIPan, hamasei neska-mutil daude matrikulatuta bi urteko gelan.

Iruñeko Iturrama HLHIPan, hamasei neska-mutil daude matrikulatuta bi urteko gelan.

Hezkuntza Departamentua pilotajearen ebaluazio prozesua amaitzeko zain dago esperientziaren balorazio objektiboa egiteko.

Une honetan, datorren ikasturterako D eredu-ko bi urteko gela sartzeko aukera ari dira baloratzeko honako ikastetxe hauetan:

- Alaiz HLHIPa, Barañainen
- Ezkaba HLHIPa, Antsoainen

Iruñean, 2025eko otsailaren 25ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-25/PES-00047. Galdera, Oronoz-Mugairin izanen den Lanbide Heziketako zentroaren beharrianak zehazteko prozesuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Pedro José González Felipe jaunak Oronoz-Mugairin izanen den Lanbide Heziketako zentroaren beharrianak zehazteko prozesuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 7ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak idatziz erantzuteko 11-25/PES-00047 galdera egin du. Hona Hezkuntzako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Honako bilera hauek egin dira inguruko eragileekin:

1. 2024ko urriaren 15ean, bilera bat egin zen inguruko alkateekin.

2. 2024ko azaroaren 25ean, bilera Elizondoko eta Berako zuzendariekin.

3. 2024ko abenduaren 16an, bilera inguruko zuzendariekin eta alkateekin.

4. 2025eko urtarrilaren 14an, bilera inguruko zuzendariekin eta alkateekin.

5. 2025eko otsailaren 14an, bilera inguruko zuzendariekin eta alkateekin.

Hezkuntza Departamentuak honako proposamen hau helarazi zuen:

Hezkuntza eskaintzak barnean hartuko ditu esparru hauetako programak:

a) Lanbide heziketa (LH):

- Ostatu arloko eta arropa-garbiketako laguntzailea LHB (gaur egun Elizondo IBPan)

- OMHZ Metalezko Elementuen Fabrikazioa (gaur egun Elizondo IBPan).

- OMHZ Bulegoko Informatika (gaur egun Elizondo IBPan).

- EMHZ Erizaintzako Zainketa Lagungarriak (gaur egun Elizondo IBPan).

- EMHZ Administrazio Kudeaketa (gaur egun Elizondo IBPan).

- EMHZ Mantentze-lan Elektromekanikoa (gaur egun TOKI ONA BHIan).

- EMHZ Nekazaritza Ekologikoko Ekoizpena. Eskaintza berria.

- EMHZ Natur Ingurune eta Aisialdiko Gidaria. (Zikloa egiteko behar diren kanpo-instalazioen gertutasuna dela-eta, Lekarozko BHIra eramatea proposatzen da).

- GMHZ Mekatronika Industrial (gaur egun TOKI ONA BHIan).

- GMHZ Haur Hezkuntza (gaur egun Elizondo IBPan).

- GMHZ Administrazioa eta Finantzak (gaur egun Elizondo IBPan).

- GMHZ Animazio Soziokultural eta Turistikoa. Eskaintza berria.

- GMHZ Paisajismoa eta Landa Ingurunea (online). Eskaintza berria.

- GMHZ Aho-hortzetako Higienea (online). Eskaintza berria.

Hasierako prestakuntzako eskaintza honako hauekin osatzen ahal da:

b) Profesionaltasun ziurtagiriak:

Ziurtagirien eskaintza inguruko eskariaren arabera, esate baterako:

- Arreta Soziosanitarioa Mendekotasuna duten Pertsonei.

Gizartearen zahartzeagatik eta zainketa zerbitzuen eskariagatik.

- Proiektu Jasangarrien Kudeaketa.

Landako ekimenak diseinatzeko eta egikaritzeko.

Inguruko eragileek, bestalde, prestakuntza eskaintzaren honako proposamen alternatibo hau aurkeztu zuten:

Lanbide Heziketa Berezia (LHB):

- Ostatu arloko eta arropa-garbiketako laguntzailea

Oinarrizko Mailako Heziketa Zikloa (OMHZ):

- Bulegoko Informatika
- Metalezko Elementuen Fabrikazioa

Erdi Mailako Heziketa Zikloa (EMHZ):

- Administrazio kudeaketa
- Elektromekanikako Mantentze-lanak
- Erizaintzako Zainketa Lagungarriak
- Nekazaritza Ekologikoko Ekoizpena
- Natur Ingurune eta Aisialdiko Gidaria.
- Mekanizazioa
- Eraikuntza
- Makinako elektromekanika

Goi Mailako Heziketa Zikloa (GMHZ):

- Administrazioa eta Finantzak
- Mekatronika Industrial

- Gizarteratzea

• Energia Eraginkortasuna eta Eguzki Energia Termikoa

- Basoaren eta Natur Ingurunearen Kudeaketa
- Dietetika
- Zuzendaritzarako Laguntza

Behin azkenean egingen den eskaintza zehazteko prozesua amaitu ondoren, etorkizuneko ikastetxearen premiei buruzko programa prestatzeari ekinen zaio, eta, gero, aribideko aurrekontu ekitaldian zehar kasuko proiektua egiteko lizitazioa egingen da. Ondoren, nahiz eta une honetan ezin den data zehatzik eman, hautatutako proiektua egikaritzeko duen obraren lizitazioa egingen da. Aurreikusten da 2028/2029 ikasturterako jartzen ahalko dela martxan ikastetxe berria.

Iruñean, 2025eko otsailaren 25ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00048. Galdera, Nafarroako Gobernuan eta bere erakunde publikoetan gertatu ahal izan diren laneko jazarpen kasuekin lotutako salaketei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00048. Galdera, Nafarroako Gobernuan eta bere erakunde publikoetan gertatu ahal izan diren laneko jazarpen kasuekin lotutako salaketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 7ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00048 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia

Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Gizain Fundazioari eta Desgaitasuna duten Pertsonen Laguntza Emateko Nafarroako Fundazio Publikoari (FUNDAPA) dagokienez, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuari atxikita daude, eta ez da jakin lan jazarpeneko kasu posibleekin lotutako salaketarik egon denik.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 25ean

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero idatziz erantzuteko galdera egin du, Nafarroako Parlamentuan 202500545 irteera zenbakia-rekin erregistratua (11-25/PES-00048), honako hau jakiteko: “Nafarroako Gobernuak darabilen informazioaren arabera, Lan Ikuskaritzan nahiz beste edozein entitate edo organismotan jarri al da salaketarik 2024an eta 2025ean gaur arte Nafarroako Gobernuko, enpresa publikoetako nahiz fundazio publikoetako langileek edo langile ohiek ustez pairatutako edota egindako lan jazarpeneko kasuak direla-eta? Zenbat, zer departamentu edota enpresa edota fundazio publikotako pertsonen inguruan eta zein egunetan gertatu dira?”. Horren harira, Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilariak adierazten du, sozietate publikoei dagokienez, Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak (CPEN) esan duela horietan ez dela izan Lan Ikuskaritzan nahiz beste erakunde ofizial batean lan jazarpeneko kasu posibleei lotuta jarritako salaketen berri.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2025eko otsailaren 25ean.

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariaren erantzuna

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak idatziz erantzuteko 11-25/PES-00048 galdera egin du, jakiteko ea izan den lan jazarpenaren ondorioz jarritako salaketaren baten berri. Hona hemen Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismo-kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuan eta haren mendeko fundazio publikoetan (Baluarte Fundazioa eta Miguel Induráin Fundazioa) ez da jakin salaketarik jarri denik langileek nahiz langile ohiek egindako nahiz jasandako lan jazarpeneko kasu posibleen ondorioz.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 26an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

Osasuneko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00048 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako hau jakiteko: “Nafarroako Gobernuak darabilen informazioaren arabera, Lan Ikuskaritzan nahiz beste edozein entitate edo organismotan salaketarik jarri al da 2024an eta 2025ean gaur arte Nafarroako Gobernuko, enpresa publikoetako nahiz fundazio publikoetako langileek edo langile ohiek ustez pairatutako edota egindako laneko jazarpeneko kasuak direla-eta? Zenbat, zer departamentu edota enpresa edota fundazio publikotako pertsonen inguruan eta zein egunetan gertatu dira?”. Hona Nafarroako Gobernuaren Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Osasuneko Departamentuak Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren (NOPLOI), Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eta Miguel Servet Navarrabiomed Fundazioaren informazioa helarazten du.

NOPLOIren jarduketa esparruari dagokionez, jakin da bi kasu jakinarazi zirela, 2024an aurkeztuak, eta bat ere ez 2025ean. Horien inguruko ikerketa batean ere ez zen ondorioztatu lan jazarpena zenik, eta egiaztatu zen lanaren esparruko gatazka egoerak zirela.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren kasuan, 2024. eta 2025. urteetan bi aldiz eratu da gatazkako, jazarpeneko eta beste indarkeria mota batzuetako egoerak prebenitzeko, ebazteko eta jarraipena egiteko prozeduran aurreikusitako ikerketa batzordea: 2024ko ekainaren 20an eta 2025eko urtarrilaren 13an.

Miguel Servet Navarrabiomed Fundazioan ez da salaketa bat ere egon lan jazarpenagatik 2024an nahiz 2025ean.

Hori da jakinarazten dizudana, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00049. Galdera, Barañainen eguneko zentro bat eraikitzeko proiektuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Arza Porras jaunak Barañainen eguneko zentro bat eraikitzeko proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 7ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porras jaunak 11-25/PES-00049 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako honi buruz:

- Jakin dugunez, Barañaingo eguneko zentroa eraikitzeko proiektuak 24 hilabete darama geldirik. Jakin nahi dugu zer dirulaguntza eman duen Nafarroako Gobernuak zentro hori eraiki dadin: zenbatekoa, datak, Barañaingo Udalak dirulaguntza horiek jasotzean hartutako konpromisoak bete dituen/bete ez dituen, konpromiso horiek ez beteazeak izan litzakeen ondorioak eta ea zure departamentuak zer egin duen edo eginen duen Barañaingo herritarrentzat hain garrantzitsua den proiektu hori burutzen laguntzeko.

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguak kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Oraingoz, Nafarroako Gobernuak hiru dirulaguntza eman dizkio Barañaingo Udalari eguneko zentroa eraikitzeko xedez, honako hauek:

- 346.440,60 euroko dirulaguntza, 43/2022 FA bidez egindako deialdian emana. 43/2022 FA, otsailaren 18koa, Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguak kontseilariak emana, dirulaguntzen deialdia onesten duena honako plan honi lotutako inbertsioak eta jarduketak egiteko: "Iraupen luzeko laguntzen eta zaintzen plana: desinstituzionalizazioa, ekipamenduak eta teknologia". Plan hori Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren 22. osagaiaren barruan dago, hots, "Zaintzen ekonomiarako talka-plana eta berdintasun- eta inklusio-politiken indartzea" delakoaren barruan. Deialdi hori urriaren 23ko 310/2023 FA bidez aldatu zen. Pertsonen Autonomiarako eta

Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailearen ekainaren 27ko 4449/2022 Ebazpen bidez eman zen dirulaguntza. Orain arte ez zaio entitateari ordaindu dirulaguntza horretako zenbatekorik, ez baitu justifikatu kasuko esku-hartzea. Jarduketa egikaritzeko epea 2025eko ekainaren 30ean amaituko da, eta justifikatzeko epea 2025eko abenduaren 31n.

- 53.559,40 euroko dirulaguntza, 78/2023 FA bidez egindako deialdian emana. 78/2023 FA, martxoaren 3koa, Eskubide Sozial-etako kontseilariak emana, dirulaguntzen deialdia onesten duena eguneko zentroak eraikitzeko eta martxan jartzeko obrak amaitzeko Nafarroako Foru Komunitateko toki entitateentzat. Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzailearen ekainaren 28ko 4963/2023 Ebazpen bidez eman zen dirulaguntza. Zenbateko osoa justifikatu zen 2023-11-30ean.

- Dirulaguntza izenduna Barañaingo Udalari eguneko zentrorako, 2025eko aurrekontuetan sartua partida honen bidez: 920002 93100 7609 231B08 "(E) Trans. Barañaingo Udalari: EGUNEKO ZENTROA". Zenbatekoa 10.000 euro izan ziren. Diruz lagundutako jarduketa 2025. urtean zehar egikaritu behar da, eta kasuko prozedura izapidetu behar da.

Konpromiso horiek ez betetzeak izaten ahal zituen ondorioen harira:

- Dirulaguntzen bi deialdien kasuan, betetzen ez badute deialdion oinarri arautzaileetan ezarritako betebeharrak baten bat edo Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legean ezarritako betebeharren bat, onetsitako dirulaguntza kobratzeko eskubidea galduko dute, edo, kasu bada, laguntzaren dirua itzuli beharko dute, foru lege horren 35. artikuluan xedatuarekin bat.

- Horrez gainera, aintzat hartu behar da ezen, xede bererako gehienez ematen ahal den zenbatekoa, toki entitateek eguneko zentroetarako deialdietako bakoitzean metatua, 400.000 euro direla.

- Dirulaguntza izendunaren kasuan, dirulaguntza emateko ebazpenaren eranskinean ezarritako konpromisoak osorik edo partzialki betetzen ez badira, edo laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzak betetzen ez badira, kobratzeko eskubidea galduko da, eta, kasu bada, jasotako

dirulaguntzaren zenbateko osoa edo partziala itzuli beharko du entitate onuradunak, proportzionaltasunaren printzipioa aplikatuz, eta dirulaguntza ordaintzen den unetik aurrerako berandutze interesak eskatuko dira, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 9ko 11/2005 Foru Legearen 35. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Departamentuak proiektua amaitzeko egindako gestioei dagokionez, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia behin baino gehiagotan jarri da harremanetan Barañaingo Udalarekin, obren bilakaera ezagutzeko eta proiektua atzeratzea eragin zuten zailtasunak zein ziren jakiteko.

Ikusirik oraindik ere entitate batzuk inbertsioak egiten ari direla (besteak beste, Barañaingo Udala),

eta Europako Batzordeak 2023ko urriaren 10ean baimendutako epearen luzapena kontuan hartuta, otsailaren 18ko 43/2022 Foru Aginduaren bidez onartutako SEM funtsekin egindako dirulaguntzaren deialdiaren oinarriak aldatzea planteatu da, diruz lagundutako jarduketak egiteko ezarritako azken egunari dagokionez. Egun, 2025eko ekainaren 30erako dago ezarrita, eta 2025eko abenduaren 31ra arte luzatuko da.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 26an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-25/PES-00050. Galdera, hiriko hondakin-uren tratamenduari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak hiriko hondakin-uren tratamenduari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 7ko 13. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 25ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera bat egin du hiriko hondakin-uren tratamenduari buruz (11-25/PES-0000050). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohe-siorako kontseilariak ematen duen informazioa:

Jarraian, NILSA enpresa publikoak emandako informazioa azalduko dugu.

Lehenengo galdera:

Zer egoeratan daude gaur egun Nafarroako udalerriak zuzentarau berriaren 3., 6., 7. eta 8. artikuluetan bigarren, hirugarren eta, kasua bada, laugarren mailako tratamenduetarako nahitaez bete beharreko ezartzen den hondakin-uren tratamenduari dagokionez?

Lehenik eta behin, zuzentarau berriaren 3. artikuluari helduko diogu.

3. artikulua honako hau ezartzen du (hitzez hitz):

“3. artikulua

Kolektore-sistemak eta aglomerazio baten kargaren kalkulua

1. Estatu kideek zainduko dute gutxienez 2.000 bb-ko hiri-aglomerazio guztiek honako baldintza hauek betetzen dituztela:

- a) Kolektore-sistemak izatea;
- b) Etxeko hondakin-uren iturri guztiak kolektore-sistemara konektatuta egotea.

2. Estatu kideek zainduko dute 1 000 bb-tik gorako eta 2.000 bb-tik beherako hiri-aglomerazioek 1. apartatua xedatutakoa betetzen dutela 2035eko abenduaren 31rako beranduenik ere.”

Lehenik eta behin, bb neurria biztanle baliokide terminoari dagokio; hau da, araztegi batean tratatutako karga kutsatzaile osoari, pertsonen unitateko neurri bihurtuta. Horrek ez du esan nahi biztanle baliokideak erroldatutakoekin bat datozenik, baizik eta, beste jarduera batzuen karga kutsatzailea barne hartzen dutela, hala nola industria, betiere behar bezala bihurturik.

Berez, 11/1995 Errege Lege Dekretuaren 2.d artikulua arabera, biztanle baliokidearen definizioa hau da: 5 eguneko oxigeno-eskari biologikoa (OEB5) duen karga organiko biodegradagarria, eguneko 60 g O₂-koa. Baina, gure ustez, argigarriagoa da definizio zehatzaz eta lege-definizioaz gain, definizio ez hain teknikoa eta argigarriagoa ematea.

Hori azalduta, azaldu nahi dugu gaur egun Nafarroako Foru Komunitateko 1.000 bb edo gehiagoko hiri-aglomerazio guztiek kolektore-sistema dutela, etxeko hondakin-uren iturriak kolektore-sistema batera konektatuta dauden bezala. Hau da, bakar batek ere ez du araua urratzen; aitzitik, guztiek betetzen dute.

Bigarrenik, 6. artikuluari helduko diogu.

6. artikulua honako hau ezartzen du (hitzez hitz):

“6. artikulua

Bigarren mailako tratamendua

1. Estatu kideek zainduko dute, ur hartzaileetara isuri aurretik, 2.000 bb-tik gorako hiri-aglomerazioetako hondakin-urak tratatzen dituzten hiriko hondakin-uren tratamendu-instalazioetatik datozen isurketek l. eranskinaren B zatian eta 1. koadroan ezarritako bigarren mailako tratamenduko baldintza egokiak betetzen dituztela, l. eranskinaren C zatian ezarritako emaitzen kontrolerako eta ebaluaziorako metodoekin bat etorriz. Ezertan galarazi gabe l. eranskinaren C zatian 1. puntuan adierazitako metodo alternatiboak erabiltzea, l. eranskinaren C zatian eta 4. koadroan daude ezarrita l. eranskinaren B zatian eta 1. koadroan jasotako balio parametrikoei bat ez datozen laginen gehieneko kopurua.

[...]

2. Hiriko hondakin-urak 2025eko urtarrilaren 1eko 91/271/EEE Zuzentarauaren 6. artikulua 1. apartatua aipatutako sentikortasun txikiaren eremuetan isurtzen dituzten hiri-aglomerazioen

kasuan, 1. apartatuaren lehenengo paragrafoan ezarritako betebeharrak 2037ko abenduaren 31n aplikatuko dira.

3. Beranduenez 2035eko abenduaren 31n, estatu kideek zainduko dute, ur hartzaileetara isuri aurretik, 1.000 bb-tik gorako eta 2.000 bb-tik beherako hiri-aglomerazioetako hondakin-urak tratatzen dituzten hiriko hondakin-uren tratamendu-instalazioetatik datozen isurketek I. eranskinaren B zatian eta 1. koadroan ezarritako bigarren mailako tratamenduko baldintza egokiak betetzen dituztela. Ezertan galarazi gabe I. eranskinaren C zatiaren 1. puntuan adierazitako metodo alternatiboak erabiltzea, I. eranskinaren C zatian eta 4. koadroan daude ezarrita I. eranskinaren B zatian eta 1. koadroan jasotako balio parametroekin bat ez datozen laginen gehieneko kopurua.

Estatu kideek gehienez ere honako epe hauek gainditu ahal izanen dute lehenengo paragrafoan aipatzen den epea:

a) zortzi urte, baldin eta, 2025eko urtarrilaren 1ean:

i) lehenengo paragrafoan aipatutako hiri-aglomerazioen % 50 baino gutxiagotako hiriko hondakin-uren isurketek bigarren mailako tratamendua jasotzen badute beren lurraldean, I. eranskinaren B zatiaren eta 1. koadroaren arabera, edo

ii) lehenengo paragrafoan aipatutako hiri-aglomerazioetako hiriko hondakin-uren kargaren % 50 baino gutxiagok bigarren mailako tratamendua jasotzen badu bere lurraldean, I. eranskinaren B zatiaren eta 1. koadroaren arabera;

b) hamar urte, baldin eta, 2025eko urtarrilaren 1ean:

i) lehenengo paragrafoan aipatutako hiri-aglomerazioen % 25 baino gutxiagotako hiriko hondakin-uren isurketek bigarren mailako tratamendua jasotzen badute beren lurraldean, I. eranskinaren B zatiaren eta 1. koadroaren arabera, edo

ii) lehenengo paragrafoan aipatutako hiri-aglomerazioetako hiriko hondakin-uren kargaren % 25 baino gutxiagok bigarren mailako tratamendua jasotzen badu bere lurraldean, I. eranskinaren B zatiaren eta 1. koadroaren arabera.

[...]

Estatu kideek lehenengo paragrafoan aipatzen den epea gainditzeko badute, 23. artikuluan aipatzen den beren lehenengo gauzatze-programa nazionalen honako hauek sartzen direla zainduko dute:

a) 2025eko urtarrilaren 1ean bigarren mailako tratamendurik ez duten 1.000 bb eta 2.000 bb bitarteko hiri-aglomerazioen kopurua;

b) plan bat, zeinetan zehaztuko diren hiri-aglomerazio horiek, luzatutako epeetan, ezarritako baldintzak erabat betetzeko behar diren inbertsioak, eta

c) lehenengo paragrafoan aipatutako epearen luzapenak justifikatzen dituzten arrazoi tekniko edo ekonomikoak.

Lehenengo paragrafoan aipatutako epearen luzapenak bigarren edo hirugarren paragrafoan eta laugarren paragrafoan ezarritako baldintzak betetzen badira bakarrik aplikatuko dira. Baldintza horiek betetzen ez badira, Batzordeak jakinarazpen bat bidaliko die estatu kideei 2028ko uztailaren 31n beranduenez.

[...]

5. Urtean zehar hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazio batean sartzen den urteko gehieneko zamaren asteko batez bestekoa oinarri hartuta kalkulatu da bb bidez adierazitako karga, aparteko egoera meteorologikoak kontuan hartu gabe; adibidez, euri-jasek eragindakoak.”

Artikulu horren eskakizunetatik, Nafarroako Foru Komunitatean aplikatzekoak dira honako hauek, laburki, 2035eko abenduaren 31 baino lehen, 1.000-2.000 bb-ko hiri-aglomerazioetarako:

- OEB (oxigeno-eskaera biologikoa): 25 mg/l edo % 70-90

- OEK (oxigeno-eskaera kimikoa): 125 mg/l edo % 75; edo KOG (karbono organiko totala) 37 mg/l edo % 75

- SET (solido eseki totalak): 35 mg/l edo % 90

Berriz ere esan dezakegu Nafarroak dagoeneko betetzen duela, identifikatutako aglomerazioei dagokienez, arau berriaren ezarritakoa, horiek guztiek bigarren mailako tratamendua baitute, eta eskatzen diren kalitate-parametroak betetzen dituela ere esan dezakegu.

Hirugarrenik, 7. artikuluari helduko diogu.

7. artikulua honako hau ezartzen du (hitzez hitz, letra lodia gurea bakarrik bada ere):

“7. artikulua

Hirugarren mailako tratamendua

1. Estatu kideek zainduko dute, ur hartzaileetara isuri aurretik, gutxienez 150.000 bb-ko karga duten hiriko hondakin-urak tratatzen dituzten eta 2025eko urtarrilaren 1erako hiru-

garren mailako tratamendurik aplikatzen ez duten hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazioetatik datozen isurketek hirugarren mailako tratamenduari dagozkion baldintzak betetzen dituztela I. eranskinaren B zatia eta 2. koadroaren arabera, beranduenez:

a) 2033ko abenduaren 31n, hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazio horien % 30en isurketetarako;

b) 2036ko abenduaren 31n, hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazio horien % 70en isurketetarako.

Beranduenez ere 2039ko abenduaren 31n, estatu kideek zainduko dute, ur hartzaileetara isuri aurretik, gutxienez 150.000 bb-ko karga duten hiriko hondakin-urak tratatzen dituzten hiriko hondakin-uren tratamendu-instalazioetako isurketa guztiek hirugarren mailako tratamenduko baldintza egokiak betetzen dituztela (I. eranskina, B zatia eta 2. koadroa).

2. Beranduenez 2027ko abenduaren 31n, estatu kideek beren lurraldean eutrofizazioarekiko sentikorrak diren eremuen zerrenda egin eta argitaratuko dute. Gune horiek nitrogeno-arekiko edo fosforoarekiko edo biekiko sentikorrak diren adieraziko da. Zerrenda hori sei urtean behin eguneratuko dute, 2033ko abenduaren 31tik aurrera.

Lehenengo paragrafoan aipatutako zerrendan II. eranskinean adierazitako eremuak sartuko dira.

Lehenengo paragrafoan ezarritako betekizuna ez da aplikatuko estatu kide batek 5. apartatuaren arabera hirugarren mailako tratamendua aplikatzen badu bere lurralde osoan.

3. 1. apartatuan xedatutakoari kalterik egin gabe, estatu kideek zainduko dute, 2. apartatuan aipatutako zerrendako eremuetan isuri aurretik, gutxienez 10.000 bb-ko hiri-aglomerazioetako hondakin-urak tratatzen dituzten hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazioetako isurketek I. eranskinaren B zatian eta 2. koadroan agertzen diren hirugarren mailako tratamenduko baldintza egokiak betetzen dituztela, beranduenez:

a) 2033ko abenduaren 31n, aipatutako hiri-aglomerazioen % 20rako;

b) 2036ko abenduaren 31n, aipatutako hiri-aglomerazioen % 40rako;

c) 2039ko abenduaren 31n, aipatutako hiri-aglomerazioen % 60rako;

d) 2045eko abenduaren 31n, aipatutako hiri-aglomerazio guztietarako.

4. Estatu kideek gehienez zortzi urtez gainditu ahal izanen dute 3. apartatuaren d) letran aipatutako epea, baldin eta:

a) dagokien hiri-aglomerazioen % 50ek, gutxienez, ez badute aplikatzen hirugarren mailako tratamendurik, 91/271/EEE Zuzentarauan ezarritako betekizunen arabera, edo ez badituzte betetzen Zuzentarau horren I. eranskinaren B zatiko eta 2. koadroko betekizunak 2025eko urtarrilaren 1erako, eta

b) 23. artikulua 2. apartatuari jarraikiz aurkeztutako lehen gauzatze-programa nazionalak honako hauek jasotzen baditu:

i) 3. apartatuan aipatutako hiri-aglomerazioen kopurua, 2025eko urtarrilaren 1erako 91/271/EEE Zuzentarauan ezarritako betekizunen arabera hirugarren mailako tratamendurik ez dutenena edo Zuzentarau horren I. eranskinaren B zatiko eta 2. koadroko baldintzak betetzen ez dituztenena,

ii) plan bat, zeinetan zehaztuko diren hiri-aglomerazio horiek, luzatutako epeetan, ezarritako baldintzak erabat betetzeko behar diren inbertsioak, eta

iii) 3. apartatuaren d) letran aipatutako epearen luzapena justifikatzen duten arrazoi tekniko edo ekonomikoak.

Apartatu honetan aipatzen den epea luzatzeko, lehenengo paragrafoan ezarritako baldintzak bete beharko dira. Baldintza horiek betetzen ez badira, Batzordeak jakinarazpen bat bidaliko die estatu kideei 2028ko uztailaren 31n beranduenez. Dena den, hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazioek, gutxienez 150.000 bb-ko karga tratatzen badute, 1. apartatuan ezarritako epeak bete beharko dituzte.

5. 1. eta 3. apartatuetan aipatzen diren hiriko hondakin-uren isurketek I. eranskinaren B zatian eta 2. koadroan ageri diren dagozkien baldintzak beteko dituzte, I. eranskinaren C zatian ezarritako emaitzen kontrolerako eta ebaluaziorako metodoen arabera. I. eranskinaren 2. koadroan adierazitako parametro bakoitzerako laginen urteko batez bestekoa koadro horretan ageri diren balio parametroen arabera izanen da.

6. Eraikitzen ari diren hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazioen kasuan, baldin eta horietako hirugarren mailako tratamenduan berrikuntza garrantzitsuak egiten ari badira edo berrikuntzak enkargatu badituzte 2020ko abenduaren 31 baino geroago eta 2025eko urtarrilaren 1a baino lehenago, artikulua honetan aipatzen diren nitrogeno-parametroari buruzko eskakizunak gehienez ere bost urtera aplikatuko dira, 1. eta 3. apartatuetan ezarritako epeetatik aurrera.

7. Batzordeak ahalmena izanen du I. eranski-neko C zatia aldatzeko 27. artikuluan aurreikusita-ko prozeduraren arabera eskuordetutako egintzak egiteko, hirugarren mailako tratamenduaren arlo- an emaitzen kontrolerako eta ebaluaziorako meto- doak aurrerapen zientifiko eta teknikora egokitze aldera.

8. 3. eta 5. paragrafoetan xedatutakoa gorabe- hera, estatu kideek erabaki ahal izanen dute 2. apartatuan aipatutako zerrendan jasotako eremu batean kokatutako tratamendu-instalazio jakin batek 3. eta 5. apartatueta ezarritako baldintzak bete behar ez izatea, baldin eta egiazta badaiteke eremu horretako hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazio guztietan sartzen den karga globala murrizteko gutxieneko ehunekoa honako hau dela:

a) gutxienez % 75 fosforo totalaren kasuan, eta gutxienez % 75 nitrogeno totalaren kasuan, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera;

b) % 82,5 fosforo totalaren kasuan, eta % 80 nitrogeno totalaren kasuan, 2039ko abenduaren 31n beranduenik ere;

c) % 87,5 fosforo totalaren kasuan, eta % 82,5 nitrogeno osototalaren kasuan, 2045eko abenduaren 31n beranduenik ere;

9. Gutxienez 10.000 bb-ko hiriko hondakin- urak tratatzeko instalazioetatik datozen isurketak, 2. apartatuan aipatutako zerrendan jasotako eutrofizazioarekiko sentikorra den eremuren bate- ko bilketa-eremu batean egiten badira, 3., 5. eta 8. apartatueta xedatutakoari lotuta geratuko dira.

10. Estatu kideek zainduko dute 2. apartatuan aipatutako zerrendan jasotako eremuren batean dauden hiriko hondakin-urak tratatzeko instala- zioetako isurketek, apartatu horretan eskatutakoa- ri jarraikiz zerrendako aldizkako eguneratzeetako bat egin ondoren, 3. eta 5. apartatueta ezarritako baldintzak betetzen dituztela, zerrenda horretan sartu eta zazpi urteko epean.

11. Nazio mailan 1. eta 3. apartatueta aipatu- tako helburuak betetzeko hobetu behar diren hiri- ko hondakin-urak tratatzeko instalazioen kopurua zenbaki osoa ez denean, hiriko hondakin-urak tra- tatzeko instalazioen kopurua gertuen dagoen zen- baki osora biribilduko da. Bi zenbaki osotarako aldea berdina bada, beherantz biribilduko da zen- bakia.”

Artikulu horren eskakizunak, Nafarroari dago- kionez, honela zehatz daitezke:

Nitrogeno- eta fosforo-isurketen gehieneko balioak aurreko zuzentarauan (91/271/EEE):

Parametroak	Kontzentrazioa	
	10.000-100.000 bb	> 100.000 bb
Fosforoa, guztira	2 mg/L P	1 mg/L P
Nitrogenoa, guztira (c) (mg/L N)	15 mg/L N (d)	10 mg/L N

Nitrogeno- eta fosforo-isurketen gehieneko balioak zuzentaru berrian (2024/3019):

• HUA (hondakin-uren araztegiak) ≥ 150.000 bb: % 100 2039/12/31rako

• ≥ 10.000 bb-ko aglomerazioak (eutrofizatzeko arriskuarekin): % 100 2045/12/31rako

• % gradualki 2033tik aurrera

Balio maximoak	
Bat edo bi aplika daitezke 10.000 – 150.000 bb arteko aglomerazioetan	
HUA $\geq$ 150.000 bb $\rightarrow$ BIAK	
P, guztira:	0,5 mg/L edo % 90 ($\geq$ 150.000 bb) 0,7 mg/L edo % 87,5 (10.000 - 150.000 bb)
N, guztira:	8 mg/L edo % 80 ($\geq$ 150.000 bb) 10 mg/L edo % 80 (10.000 - 150.000 o/h- bb)

Nafarroan, 150.000 bb baino gehiagoko araztegi bakarria Arazurikoa da (lehen puntuaren barruan dago), eta Iruñerriari ematen dio zerbitzua. Gaur egun, araztegi horrek mugatuta ditu bere nitrogeno- eta fosforo-mailak, aurreko zuzentarauaren arabera, eta horrek esan nahi du maila horiek betetzen dituela. Beraz, beharrezkoak diren jarduerak eta inbertsioak programatu beharko dira, araudi berrian adierazitako egunean (2039ko abenduaren 31n) arau berrian ezarritako kalitate-helburu berriak betetzen direla ziurtatzeko.

10.000 bb baino gehiagoko aglomerazioei dagokienez, eta 2023ko datuen arabera, 14 daude Nafarroan, eta horietatik Tafalla-Erriberri HUAk bakarrik gaintitzen ditu 10.000 bb-ak, berezitasun batekin gainera: Cidacos ibaira isurtzen ditu urak, Nafarroan sentikortzat jotako ibilgu bakarrera.

Horrela, bada, HUA horretarako (nitrogenoaren eta fosforoaren isurketa-balioak mugatuta ditu eta aurreko zuzentarauaren eskakizunen arabera betetzen ditu), eta Arazuri HUAren kasuan bezala, inbertsioak eta jarduketak programatu beharko dira, estatu mailan aglomerazioen lehen % 20ren artean egonez gero, 2033ko abenduaren 31n mantenugaien mailak hobetzeko irtenbide teknikoak ezarrita egon dadin dagokion epean edo 2045eko abenduaren 31ra arteko gehieneko epean. Kontuan izan behar da eutrofizazio-arriskuan dauden eremuek zehaztuta egon behar dutela estatu mailan 2027ko abenduaren 31rako.

10.000 bb baino gehiagoko gainerako HUAetarako, plan bat ezarriko da Estatu mailan, aurreko kasuan bezalaxe. Baina kasu honetan bi nutrienteetako bat bakarrik mugatu daiteke (nitrogenoa edo fosforoa). Berriz ere kontuan izan behar dugu Espainiako Estatuan ezartzen den murrizketa Zuzentarauan adierazitakoa baino zorrotzagoa izan daitekeela, eta, arroko erakundearen iritziz

eta arrazoitutako kasu zehatzetan, isurketaren kontzentrazioaren muga-balioak Zuzentarauan edo indarreko legerian aurreikusitakoa baino zorrotzagoak izan daitezkeela.

Hala ere, eta legeriak ezarri baino lehen aurrea egiteko asmoz, ahal bada, jakinarazi nahi dugu NILSAn kontuan hartu direla joera horiek eta muga berrien aurreikuspenak (sozietate publiko gisa egin ditugun azken ekitaldietako hobekuntza-eta jarduera-planetan).

Hori esanda, lehenengo galdera horren laugarren eta azken lekuan, 8. artikuluari helduko diogu.

8. artikulua honako hau ezartzen du (hitzez hitz):

“8. artikulua

Laugarren mailako tratamendua

1. Estatu kideek zainduko dute, ur hartzaileetara isuri aurretik, gutxienez 150.000 bb-ko karga duten hiriko hondakin-urak tratatzen dituzten instalazioetatik datozen isurketek I. eranskinaren B zatian eta 3. koadroan ezarritako laugarren mailako tratamenduko baldintza egokiak betetzen dituztela, I. eranskinaren C zatian ezarritako emaitzen kontrolerako eta ebaluaziorako metodoekin bat etorritik, beranduenez:

a) 2033ko abenduaren 31n, hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazio horien % 20ren isurketetarako;

b) 2039ko abenduaren 31n, hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazio horien % 60ren isurketetarako;

c) 2045eko abenduaren 31, hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazio horietatik datozen isurketa guztietarako.

1. eranskinaren C zatian eta 4. koadroan ezarzen da I. eranskinaren 3. koadroko balio parametrikotara egokitzen ez diren laginetarako baimendutako gehieneko kopurua.

2. Beranduenez 2030eko abenduaren 31rako, estatu kideek zerrenda batean jasoko dituzte beren lurralde nazionalako eremuak, zeinetan hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazioetatik datozen mikrokutsatzaileen kontzentrazioa edo metaketa ingurumenerako eta giza osasunerako arriskutsua den. Estatu kideek 2033an berrikusiko dute zerrenda hori, eta, ordutik aurrera, sei urtean behin, eta, behar izanez gero, eguneratu egingen dute.

Honako eremu hauek sartuko dira lehenengo paragrafoan aipatutako zerrendan:

a) giza kontsumorako ura ateratzeko puntuak biltzeko eremuak, 2020/2184 (EB) Zuzentarauaren 8. artikuluan 2. apartatuaren a) letran ezarritako ezaugarriak dituztenak, salbu eta Zuzentaru horren 8. artikuluan 2. apartatuaren b) letrari jarraikiz egindako arrisku-ebaluazioak adierazten badu hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazioetatik datorren mikrokutsatzaile-isurketak ez dakarrela arrisku potentzialik uraren kalitatea nabarmen okertzeko giza osasunerako arriskutsu izateraino;

b) 2006/7/EE Zuzentarauaren aplikazio-eremuko bainatzeko urak, salbu eta Zuzentaru horren 6. artikuluan eta III. eranskinean aipatutako bainatzeko uren profilak adierazten badu hiriko hondakin-uretatik sortutako mikrokutsatzaileen isurketak ez diela bainatzeko urei eragiten eta ez diola kalterik egiten bainularien osasunari; edo

c) akuikultura-jarduerak egiten diren eremuak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1380/2013 (EB) Erregelamenduaren (37) 4. artikuluan 25. puntuan definitzen den bezala, salbu eta agintari nazional eskudunek uste badute hiriko hondakin-uretatik sortutako mikrokutsatzaileen isuriak ezin duela eraginik izan amaierako elikagai-produktuaren segurtasunean.

Lehenengo paragrafoan aipatutako zerrendan honako eremu hauek ere sartuko dira, hiriko hondakin-uretan dauden mikrokutsatzaileak isurtzeak ingurumenari eta giza osasunari dakarzkien arriskuen ebaluazioan oinarrituta:

a) lakuak, 2000/60/EE Zuzentarauaren 2. artikuluan 5. puntuan definitzen diren moduan;

b) ibaiak, 2000/60/EE Zuzentarauaren 2. artikuluan 4. puntuan definitzen diren moduan, edo 10 baino diluzio-ratio txikiagoa duten beste ur-korronte batzuk;

c) 2000/60/EE, 2006/118/EE eta 2008/105/EE Zuzentarauetan ezarritako baldintzak betetzeko tratamendu gehigarria behar duten eremuak; 38

d) kontserbazio bereziko eremuak, Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentarauaren 1. artikuluan I) letran definitzen diren bezala (), eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (39) 2009/147/EE Zuzentarauaren 4. artikuluan 1. apartatuaren laugarren paragrafoaren arabera babes bereziko eremu gisa sailkatuta dauden eta Natura 2000 sare ekologikoaren parte diren eremuak;

e) kostaldeko urak, 2000/60/EE Zuzentarauaren 2. artikuluan 7. puntuan definitzen diren moduan;

f) trantsizioko urak, 2000/60/EE Zuzentarauaren 2. artikuluan 6. puntuan definitzen diren moduan;

g) itsasoko urak, 2008/56/EE Zuzentarauaren 3. artikuluan 1. puntuan definitzen diren moduan. Hirugarren paragrafoan aipatutako arrisku-ebaluazioa Batzordeari jakinaraziko zaio, berak hala eskatuta.

3. Batzordeak ahalmena izanen du 2. apartatuaren hirugarren paragrafoan aipatzen den arrisku-ebaluazioaren formatua eta ebaluazio horretarako erabili behar den metodoa ezartzen duten bete-arazpen-egintzak hartzeko. Bete-arazpen-egintza horiek 28. artikuluan 2. apartatuan aipatzen den azterketa-prozedurarekin bat egingen dira.

4. 1. apartatuan xedatutakoaren kaltetan izan gabe, estatu kideek zainduko dute, 2. apartatuan aipatzen den zerrendako eremuetan isuri aurretik, gutxienez 10.000 bb-ko hiri-aglomerazioetako hondakin-uren isurketek I. eranskinaren B zatian eta 3. koadroan ezarritako laugarren mailako tratamenduko baldintzak betetzen dituztela, I. eranskinaren C zatian ezarritako emaitzen kontrolerako eta ebaluaziorako metodoei jarraikiz, beranduenez:

a) 2033ko abenduaren 31n, aipatutako hiri-aglomerazioen % 10erako;

b) 2036ko abenduaren 31n, aipatutako hiri-aglomerazioen % 30erako;

c) 2039ko abenduaren 31n, aipatutako hiri-aglomerazioen % 60erako;

d) 2045eko abenduaren 31n, aipatutako hiri-aglomerazioen % 100erako.

I. eranskinaren C zatian eta 4. koadroan ezarzen da I. eranskinaren 3. koadroko balio parametrikotara egokitzen ez diren laginen baimendutako gehieneko kopurua.

Batzordeak ahalmena izanen du 27. artikuluan I. eranskinaren C zatia aldatzeko aurreikusitako prozeduraren arabera eskuordetutako egintzak egiteko, laugarren sektoreko tratamenduaren arloan emaitzen kontrolerako eta ebaluaziorako metodoak aurrerapen zientifiko eta teknikora egokitze aldera.

5. Estatu kideek zainduko dute 2. apartatuan aipatutako zerrendan jasotako eremu batean dauden hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazioetatik datozen hiriko hondakin-uren isurketek, apartatu horretan eskatzen den zerrendaren aldizkako eguneratzeetako baten ondoren, 4. apartatuan eta I. eranskinaren B zatian eta 3. koadroan ezarritako baldintzak betetzen dituztela, zerrenda horretan sartu eta zazpi urteko epean, baina ez 4. apartatuan ezarritako epeak baino beranduago.

6. Batzordeak betearazpen-egintzak hartu ahal izanen ditu hiriko hondakin-uretan I. eranskinaren 3. koadroan ezarritako adierazleen presentzia eta kantitateak zehazte aldera estatu kideek erabili behar dituzten kontrol- eta laginketa-metodoak ezartzeko. Betearazpen-egintza horiek 28. artikuluen 2. apartatuan aipatzen den azterketa-prozedurarekin bat eginen dira.

7. 1. apartatuaren lehenengo paragrafoaren a) eta b) letretan aipatutako helburuak betetzeko hobetu behar diren hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazioen kopurua, nazio mailakoa, zenbaki osoa ez denean, gertuen dagoen zenbaki osora biribilduko da hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazioen kopurua. Bi zenbaki osotarako aldea berdina bada, beherantz biribilduko da zenbakia.

8. Artikulu honen gainerako xedapenen kaltetan izan gabe, eta tratatutako hiriko hondakin-uren berrerabilera ingurumenerako eta gizakien osasunerako segurua dela bermatze aldera, estatu kideek zainduko dute, hala dagokionean, berrerabiltzen diren edo berrerabiliko direla aurreikusten den hiriko hondakin-urak I. eranskinaren B zatian eta 3. koadroan ezarritako laugarren mailako tratamendurako baldintzen arabera tratatuko direla. Estatu kideek zainduko dute 2020/741 (EB) Erregelamenduaren arabera egindako arrisku-ebaluazioen emaitza kontuan hartuko dela tratatutako hiriko hondakin-urak nekazaritzarako berrerabiltzen badira.”

Kasu horretan, eta Foru Komunitateari aplikatuta, honako eskakizun hauek eskatzen dira:

- HUA $\geq$ 150.000 bb: % 100 2045ean.
- $\geq$ 10.000 bb-ko aglomerazioak, mikrokutsatzailak metatzeko arriskua badago: % 100 2045ean.
- % pixkanaka 2033tik aurrera.

150.000 bb baino gehiagoko hondakin-uren araztegi bakarra Arazuri denez, instalazio horretan beharrezkoak diren inbertsioak eta neurriak egin beharko dira, Zuzentarauan aurreikusitako mikrokutsatzaileen murrizketa-balioak betetzeko.

Ildo horretan, eta 3. eta 4. galderetan xehetasunez garatuko dugun bezala, NILSAk, Iruñerriko Mankomunitateak bezala (gogoan izan Arazuriko araztegia erakunde horrek operatu eta kudeatzen duela), mikrokutsatzaile horiei buruzko hainbat proiektu egin eta horietan parte hartu du, bai detektatzeko eta kontrolatzeko, bai HUAetako isurketak murrizteko eta ezabatze hainbat modu aztertze.

Orain arte hainbat HUAren (Arazuri barne) isurketetan egindako azterlanetatik, ez da ezagutzen isurketa horietan dauden mikrokutsatzaileek eragindako zona edo ur-masarik, eta ez da hauteman elementu horien kontzentrazioarik edo baliorik bibliografia zientifikoan ezarritakoaren bestelakoa edo kontrakoa denik.

Jatorrian jardutearen garrantzia azpimarratu behar dugu: HUAetako hondakin-uretan agertzen diren mikrokutsatzaileak ez dira HUA horietan sortzen, giza jardueratik datozelako, dela industriatik, dela etxeetatik. Elementu horiek kentzea oso garestia da energetikoki, eta araztegiengan egiteak isuritako bolumen guztia laugarren mailako tratamenduetan tratatzea ekarriko luke, konposatu horien kontzentrazio oso txikiak ezabatze.

Mikrokutsatzaileetan murgilduko gara azken bi galderetan, baina lehen galdera hori erantzuntzat jotzen dugu, artikuluz artikulatu aztertu baitugu, legebiltzar-taldearen errekerimenduari jarraikiz.

Bigarren galdera

Zer egoeratan daude gaur egun Nafarroako udalerrriak gutxienez ere 1.000 bb-ko hirietako hondakin-urak jasotzeko, biltzeko eta, kasu bada, tratatzeko sistema indibidualak erabiltzeari dagokionez?

Aurreko galderan aipatu dugun bezala –Zuzentarau berriaren 3. artikulua–, esan dezakegu Foru Komunitateak dagoeneko betetzen dituela aglomerazio-maila horretan eskatzen diren parametroak eta baldintzak, eta guztiek dutela bigarren mailako tratamendua.

Ildo horretan, azpimarratu nahi genuke, gainera, Nafarroak ez dituela eskakizunak populazio-maila horretan soilik betetzen; izan ere, 250 biztanletik gorako herri guztiek dute bigarren mailako tratamendua, eta horrek lidergo-posizioan jartzen gaitu estatu osoan. Era berean, azpiegitura horiek hornitzeak despopulazioaren aurka borrokatze

politika publikoei laguntzen die, dentsitate txikiko guneeetan jarduten dutelako, eta, batzuetan, despopulazio-arrisku zuzeneko guneeetan.

Beraz, azpiegitura horiek udalerri guztietan baldintza berdinetan eraikitzeak, biztanle-kopurua edozein dela ere, lurraldea kohesionatzen du eta berdintasun-printzipioa errespetatzen du herritar guztientzat: saneamendu-kanon berean, zerbitzu berdinetan, edozein puntu geografikotan.

Hirugarren galdera

Gobernuak edo NILSAk ba al dute azterlanik, ikerketarik edo txostenik hiriko hondakin-uretan farmazia-produktuetatik eta produktu kosmetikoe-tatik heldu diren hondakinak egoteari dagokionez?

Joan den azaroan Europako zuzentarau berria onartu zen arte (aurtengo urtariletik dago indarrean), ez zegoen konposatu horiek uretan zuten presentzia mugatuko zuen araudi espezifikorik. Arau berriak, aldiz, laugarren mailako tratamenduak jasotzen ditu. Tratamendu horien helburua mikrokutsatzaileak ezabatzea da, eta nahitaez ezarri beharko dira 150.000 biztanle baliokide baino gehiago dituzten araztegiengan: horien % 20an 2033ko abenduaren 31rako, zuzentarauaren 8. artikulua arabera. % 20 hori oraindik zehazteke dute horretarako eskumena duten estatu-erakundeek, zuzentarau berria oraintsu sortu baita.

Artikulu horren arabera, mikrokutsatzaile-arriskua (adibidez, mikroplastikoak) duten eta 10.000 eta 100.000 bb artean duten aglomerazioek ere laugarren mailako tratamenduak izan beharko dituzte 2030erako.

“8. artikulua

Laugarren mailako tratamendua

1. Estatu kideek zainduko dute, ur hartzaileetara isuri aurretik, gutxienez 150.000 bb-ko karga duten hiriko hondakin-urak tratatzen dituzten instalazioetatik datozen isurketek I. eranskinaren B zatian eta 3. koadroan ezarritako laugarren mailako tratamenduko baldintza egokiak betetzen dituztela, I. eranskinaren C zatian ezarritako emaitzen kontrolerako eta ebaluaziorako metodoekin bat etorritik, beranduenez:

a) 2033ko abenduaren 31n, hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazio horien % 20ren isurketetarako;

b) 2039ko abenduaren 31n, hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazio horien % 60ren isurketetarako;

c) 2045eko abenduaren 31n, hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazio horietatik datozen isurketetarako.

I. eranskinaren C zatian eta 4. koadroan ezarritako I. eranskinaren 3. koadroko balio parametrikotara egokitzen ez diren laginen baimendutako gehieneko kopurua.

2. Beranduenez 2030eko abenduaren 31rako, estatu kideek zerrenda batean jasoko dituzte beren lurralde nazionalako eremuak, zeinetan hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazioetatik datozen mikrokutsatzaileen kontzentrazioa edo metaketa ingurumenerako eta giza osasunerako arriskutsua den. Estatu kideek 2033an berrikusiko dute zerrenda hori, eta, ordutik aurrera, sei urtean behin, eta, behar izanez gero, eguneratu egingen dute.

Honako eremu hauek sartuko dira lehenengo paragrafoan aipatutako zerrendan:

a) giza kontsumorako ura ateratzeko puntuak biltzeko eremuak, 2020/2184 (EB) Zuzentarauaren 8. artikulua 2. apartatuaren a) letran ezarritako ezaugarriak dituztenak, salbu eta Zuzentarau horren 8. artikulua 2. apartatuaren b) letrari jarraikiz egindako arrisku-ebaluazioak adierazten badu hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazioetatik datorren mikrokutsatzaile-isurketak ez dakarrela arrisku potentzialik uraren kalitatea nabarmen okertzeko giza osasunerako arriskutsu izateraino;

b) 2006/7/EE Zuzentarauaren aplikazio-eremuak bainatzeko urak, salbu eta Zuzentarau horren 6. artikuluan eta III. eranskinean aipatutako bainatzeko uren profilak adierazten badu hiriko hondakin-uretatik eratorritako mikrokutsatzaileen isurketak ez diela bainatzeko urei eragiten eta ez diola kalterik egiten bainularien osasunari;

c) akuikultura-jarduerak egiten diren eremuak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1380/2013 (EB) Erregelamenduaren (37) 4. artikulua 25. puntuan definitzen den bezala, salbu eta agintari nazional eskudunek uste badute hiriko hondakin-uretatik sortutako mikrokutsatzaileen isuriak ezin duela eraginik izan amaierako elikagai-produktuaren segurtasunean.

Lehenengo paragrafoan aipatutako zerrendan honako eremu hauek ere sartuko dira, hiriko hondakin-uretan dauden mikrokutsatzaileak isurtzeak ingurumenari eta giza osasunari dakartzkien arriskuen ebaluazioan oinarrituta:

a) lakuak, 2000/60/EE Zuzentarauaren 2. artikulua 5. puntuan definitzen diren moduan;

b) ibaiak, 2000/60/EE Zuzentarauaren 2. artikuluen 4. puntuan definitzen diren moduan, edo 10 baino diluzio-ratio txikiagoa duten beste ur-korrante batzuk;

c) 2000/60/EE, 2006/118/EE eta 2008/105/EE Zuzentarueta ezarritako baldintzak betetzeko tratamendu gehigarria behar duten eremuak;

d) kontserbazio bereziko eremuak, Kontseiluaren 92/43/EEE Zuzentarauaren 1. artikuluen l) letran definitzen diren bezala (38), eta Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren (39) 2009/147/EE Zuzentarauaren 4. artikuluen 1. apartatuaren laugarren paragrafoaren arabera babes bereziko eremu gisa sailkatuta dauden eta Natura 2000 sare ekologikoaren parte diren eremuak;

e) kostaldeko urak, 2000/60/EE Zuzentaruaren 2. artikuluen 7. puntuan definitzen diren moduan;

f) trantsizioko urak, 2000/60/EE Zuzentaruaren 2. artikuluen 6. puntuan definitzen diren moduan;

g) itsasoko urak, 2008/56/EE Zuzentaruaren 3. artikuluen 1. puntuan definitzen diren moduan.

Hirugarren paragrafoan aipatutako arrisku-ebaluazioa Batzordeari jakinaraziko zaio, berak hala eskatuta.

3. Batzordeak ahalmena izanen du 2. apartatuaren hirugarren paragrafoan aipatzen den arrisku-ebaluazioaren formatua eta ebaluazio horretarako erabili behar den metodoa ezartzen duten bete-arazpen-egintzak hartzeko. Bete-arazpen-egintza horiek 28. artikuluen 2. apartatuan aipatzen den azterketa-prozedurarekin bat eginen dira.

4. 1. apartatuan xedatutakoaren kaltetan izan gabe, estatu kideek zainduko dute, 2. apartatuan aipatzen den zerrendako eremuetan isuri aurretik, gutxienez 10.000 bb-ko hiri-aglomerazioetako hondakin-uren isurketek l. eranskinaren B zatian eta 3. koadroan ezarritako laugarren mailako tratamenduko baldintzak betetzen dituztela, l. eranskinaren C zatian ezarritako emaitzen kontrolerako eta ebaluaziorako metodoei jarraikiz, berandue-
nez:

a) 2033ko abenduaren 31n, aipatutako hiri-aglomerazioen % 10erako;

b) 2036ko abenduaren 31n, aipatutako hiri-aglomerazioen % 30erako;

c) 2039ko abenduaren 31n, aipatutako hiri-aglomerazioen % 60erako;

d) 2045eko abenduaren 31n, aipatutako hiri-aglomerazioen % 100erako.

l. eranskinaren C zatian eta 4. koadroan ezarritzen da l. eranskinaren 3. koadroko balio parametrikotara egokitzen ez diren laginen baimendutako gehieneko kopurua.

Batzordeak ahalmena izanen du 27. artikuluan l. eranskinaren C zatia aldatzeko aurreikusitako prozeduraren arabera eskuordetutako egintzak egiteko, laugarren sektoreko tratamenduaren arloan emaitzen kontrolerako eta ebaluaziorako metodoak aurrerapen zientifiko eta teknikora egokitzeko aldera.

5. Estatu kideek zainduko dute 2. apartatuan aipatutako zerrendan jasotako eremu batean dauden hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazioetatik datozen hiriko hondakin-uren isurketek, apartatu horretan eskatzen den zerrendaren aldizkako eguneratzeetako baten ondoren, 4. apartatuan eta l. eranskinaren B zatian eta 3. koadroan ezarritako baldintzak betetzen dituztela, zerrenda horretan sartu eta zazpi urteko epean, baina ez 4. apartatuan ezarritako epeak baino beranduago.

6. Batzordeak bete-arazpen-egintzak hartu ahal izanen ditu estatu kideek hiriko hondakin-uretan l. eranskinaren 3. koadroan ezarritako adierazleen presentzia eta kantitateak zehazteko erabili behar dituzten kontrol- eta laginketa-metodoak ezartzeko. Bete-arazpen-egintza horiek 28. artikuluen 2. apartatuan aipatzen den azterketa-prozedurarekin bat eginen dira.

7. 1. apartatuaren lehenengo paragrafoaren a) eta b) letretan aipatutako helburuak betetzeko hobe behar diren hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazioen kopurua, nazio mailakoa, zenbaki osoa ez denean, gertuen dagoen zenbaki osoa biribilduko da hiriko hondakin-urak tratatzeko instalazioen kopurua. Bi zenbaki osotarako aldea berdina bada, beherantz biribilduko da zenbakia.

8. Artikulu honen gainerako xedapenen kaltetan izan gabe, eta tratatutako hiriko hondakin-uren berrerabilera ingurumenerako eta gizakien osasunerako segurua dela bermatze aldera, estatu kideek zainduko dute, hala dagokionean, berrerabiltzen diren edo berrerabiliko direla aurreikusten den hiriko hondakin-urak l. eranskinaren B zatian eta 3. koadroan ezarritako laugarren mailako tratamendurako baldintzen arabera tratatuko direla. Estatu kideek zainduko dute 2020/741 (EB) Erregelamenduaren arabera egindako arrisku-ebaluazioen emaitza kontuan hartuko dela tratatutako hiriko hondakin-urak nekazaritzarako berrerabiltzen badira.

NILSAk, bere I+G+b ildoen barruan, funtsezko azterketa- eta lan-eremu gisa identifikatu ditu, duela hamarkada batetik, azaleratzen ari diren konposatuak ezabatzeko laugarren mailako tratamenduak.

2014an jarri zen abian oxidazio aurreratuko teknologien lehen azterketa. Puntu honetan, azaldu behar da zenbait teknologia erabiltzen direla sortzen ari diren kutsatzaileak ezabatzeko, baina erabilienak hiru prozesutan oinarritzen dira: oxidazio aurreratuko teknikak, hala nola fotokatalisia; adsorizio-teknikak zenbait materialetan, ikatz aktiboan, adibidez; eta iragazketa-teknikak, alderantzizko osmosia, ultrairagazketa eta nanoiragazketa, besteak beste. NILSAk lehenengoa aukeratu zuen duela hamaika urte.

Ikerketa-ildo horri esker sortu ziren patente bat (ES2585087 Proceso fotocatalítico en continuo para la depuración de un medio líquido y reactor para llevarlo a cabo) eta doktorego-tesi bat (Eliminación de Antibióticos de aguas contaminadas mediante fotocatalisis y adsorción, 2021ean aurkeztua), NILSAko langileek baterako zuzendaritza-pean. Aurtengo martxoan beste bat aurkeztuko da, Evolución de Procesos Electroquímicos y de Oxidación Avanzada Asistidos por Luz para la Desinfección y Degradación de Contaminantes Presentes en Efluentes de Depuradoras izenekoa, NILSAko ingeniari batek egina.

Ondoren, NILSAk Europar Batasunaren Outbiotics proiektuan (EFA 183/16) parte hartu zuen, Interreg POCTEFA 2014-2020 programak emandakoan. Proiektu horretan, Nafarroako hiriko hondakin-uretan zegoen hondakin farmazeutikoen presentziari buruzko azterlanak egin ziren. Proiektua 2018an hasi zen, eta 2021ean amaitu. Lau laginketa-kanpaina egin ziren, bi urte jarraitutan zehar, eta Foru Komunitateko zenbait udalerritako hondakin-urak eta azaleko urak bildu ziren. Emaiza horiek antibiotikoen presentziari buruzko hasierako diagnostikoaren parte izan ziren, eta presentzia hori aztertu zen abeltzaintza-presioko lekuetan, ur-arazketako estazioetan, ospitaleetako eta ibaietako efluenteetan, eta hori guztia ez Nafarroan soilik, baita proiektu horretan sartzen den POCTEFA lurralde osoan ere (Frantzia, Espainia, Andorra).

Informazio horrek intereseko kutsatzaileak ezartzeko oinarri gisa balio izan zuen, eta kutsatzaile horiek deuseztatzeko nano- eta mikro-material geldoetan oinarritutako teknologiak garatzea erabaki zen, ingurumenerako emisioa prebenitu eta murrizteko: NILSAk arestian aipatutako patentea erabili zuen horretarako. Proiektu horri buruz esku-

ragarri dagoen informazioa eskuratzen ahal da hemen: <https://outbiotics.unizar.es/>.

Proiektuaren ondorio nagusietako batzuk dira badagoela neurtutako kutsatzaileen presentzia ur kontinentaletan, kolektoreetan eta HUAetan, HUAek kutsatzaile horien gainera deuseztatzeko ehuneko handia zutela, eta horiek ezabatzeko laugarren mailako tratamendu espezifikoek oso kostu ekonomiko eta energetiko handiak dituztela. Beraz, eraginkorragoa da kutsatzaile horiek jatorrian kontrolatzea, kutsatzaileon emisio-fokuak lokalizatuz eta haien deuseztatzeko sistemak foku horietan instalatuz; jatorrian tratatzea esaten zaio horri.

Outbiotics-en ostean, Europar Batasuneko beste proiektu batean parte hartzen eta hura zuzentzen ari da NILSA –EMERGENTcy (EFA 37/01)–, Interreg POCTEFA 2021-2027 deialdiaren barruan. Oraingoan, Nafarroako beste erakunde batzuek ere parte hartzen dute, hala nola Nafarroako Unibertsitateak, Navarrabiomedek, Iruñerriko Mankomunitateak eta Osasun Publikoko Institutuak.

EMERGENTcy programaren helburua da sortzen ari diren intereseko kutsatzaileen presentzia diagnostikatzea, hala nola antibiotikoen eta farmakoen, bai eta bakterio erresistenteena eta erresistentzia-geneena ere, POCTEFA lurraldeko hiri-uraren zikloan. Testuinguru horretan, 40 substantzia inguru aukeratu dira aztertzeko, eta horien artean daude: antibiotikoak (20), antipsikotikoak (2), antiinflamatorioak (2), antidepresiboak (4), analgesikoak (4), beta-blokeatzaileak (2), eta hipertentsioaren (3), kolesterolaren (1) eta epilepsiaren (1) tratamendurakoak eta kontraste erradiologikoko eragilea (1).

Era berean, eta zuzentarau berriari aurrea hartuta, OMERen zerrendetako zazpi bakterio-talde erresistenten jarraipena egiten ari dira. Horieta hiru lehentasun kritikoko zerrendako taldekoak dira, eta lau lehentasun handiko zerrendako taldekoak.

Gainera, EMERGENTcy-ren helburuetako bat da, orobat, erresistentzia-geneak detektatzeko aukera ematen duten analisiak egitea. Farmazija-jatorriko kutsatzaileen jarraipena Nafarroako bi udalerritako saneamendu-saretik, HUAetatik eta eskualdeko ibaietatik datozen laginetan egiten da. Lagin horiek 2024-2026 aldian egindako lau kanpainatan hartuko dira, antibiotikoen kontsumo handieneko garaiekin bat etorritik, Antibiotikoekiko Erresistentziaren aurkako Plan Nazionalak egin-

dako jarraipenaren arabera. Plan hori ere proiektuari lotuta dago.

Proiektu horri buruz eskuragarri dagoen informazioa eskuratzen ahal da hemen: <https://www.emergentcy.eu/>.

Bestalde, NILSAk Europako EU-Jamrai 2 proiektuan parte hartzen du <https://eu-jamrai.eu/>. Europako Batzordeak 2024ko martxoan jarri zuen abian Resistencia a los Antimicrobianos e Infecciones Relacionadas con la Asistencia Sanitaria proiektua. Frantziako Osasun eta Ikerketa Medikoko Institutu Nazionalak koordinatuta eta Espainiak Sendagaien eta Osasun Produktuen Espainiako Agentziaren (AEMPS) eta beste 20 erakunderen bitartez parte hartuta, ekimen horren xedea da antimikrobianoekiko erresistentziari aurre egitea.

Horrez gain, NILSAko I+G+b taldeak lantaldeetan parte hartzen du Gobernu Zentralaren CEDEX agentziarekin (Obra Publikoen Azterketa eta Esperimentazio Zentroa) eta Espainiako Hornidura eta Saneamendu Elkartarekin (AEAS), laugarren mailako tratamenduak dituzten instalazioak diseinatzeko Espainian eta zuzentarauaren transposizioa egiteko legeria nazionalera.

Azkenik, azpimarratu behar da 2019an NILSA Tokiko Jasangarritasunaren Katedra sortu zela, Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin lankidetzan, eta haren azterketa-eremuen artean daudela zuzentaru berrian aipatutako arazketa-erronkak. 2024ko urrian, jardunaldi espezifiko bat antolatu zuen, haren Youtubeko kanalean ikus daitekeena (<https://www.unavarra.es/catedra-sostenibilidad-local/?languageId=100001>).

LAUGARREN GALDERA

Nafarroako hondakin-uren araztegiengan egin dako analisisetan halako mikrokutsatzailerik haute man al da? Zeinetan? Zer mailatan agertzen dira?

Hondakin uretako mikrokutsatzaileen kontrola ez da legeztatuta egon gaur egun arte, baina, 2021etik, NILSAk urteroko autokontrola egiten du zortzi HUA nagusien sarreran eta irteeran (Tutera, Ebro Beherea, Cintruénigo, Castejón, Ega Behea, Arga Beherea, Tafalla-Erriberri eta Lizarra), mikrokutsatzaileen presentziari dagokionez lehentasunezko substantziak ezagutzeko, detektatzeko eta kuantifikatzeko.

Hori egiteko, oinarritzat hartu da 817/2015 Errege Dekretua, irailaren 11koa, azaleko uren egoeraren jarraipena eta ebaluazioa egiteko irizpideak eta ingurumen-kalitatearen gaineko arauak ezartzen dituenak. Errege Dekretu horren xedea da

ingurumen-kalitateko arauak ezartzea Europako lehentasunezko substantzientzat eta beste kutsatzaile arriskutsu batzuentzat, bai eta Estatuko lehentasunezko arrisku-substantzientzat ere. Era berean, uren analisi kimikoaren eta uren egoeraren jarraipenaren zehaztapen teknikoak jasotzen ditu, eta, azaleko uren egoera kimiko ona lortze aldera, kutsatzaileen ingurumen-kalitateko arauak kalkulatzeko prozedura finkatzen du.

Nahiz eta, lehen aipatu den bezala, Nafarroako instalazioetako isurketek ezin zaien arau hori aplikatu, zenbait araztegitako sarrerako eta irteerako kontzentrazioak alderatu dira ingurumen kalitateari buruzko arau horiek ezartzen dituzten mugekin. Guztira, 110 substantzia inguru aztertu dituzte ENAC ziurtagiria duten kanpoko zenbait laborategik. Substantzia gehienak kuantifikazio-mugaren azpitik egon dira, eta 30 bat baino ez dira izan kuantifikagarriak laginketetakoren batean, µg/l ordenan.

Lehen azaldutako OUTBIOTICS proiektuaren emaitzek erakutsi zuten, aztertutako bost antibiotikoetatik lau (enrofloxazina, azitromizina, trimetoprima eta sulfadiazina) presente daude azaleko uretan eta hondakin-uretan, aztertutako ur litro bakoitzeko mikrogramoen mailan. Era berean, urak arazteko instalazioak kutsatzaile mota horiek ezabatze diseinatu ez dauden arren, adierazi berri dugun bezala, ikusi zen lagindutako HUAetan erabiltzen diren prozesuak haien kontzentrazioa murrizteko gai direla.

Bestalde, 2024ko udan egindako EMERGENTcy proiektuaren lehen laginketa-kanpainaren ondoren, aztertutako 40 substantzietatik 36 identifikatu dira: horien kontzentrazioen batez bestekoa ere ur litro bakoitzeko mikrogramoen mailan dago. Aldez aurretik, eta kontzentrazio handiagoa dela-eta, honako substantzia hauek nabarmentzen dira: parasetamola, amoxicilina-metabolitoak, leboloxazina, ketoprofena eta benlafaxazina.

Horregatik guztiagatik, ondorioztatu behar dugu detektatu direla, baina litroko mikrogramoko eskalan kasu guztietan. Gainera, ondorio gisa, nabarmendu behar da kuantifikatu ahal izan diren substantzien artean substantzia gehiago haute man direla HUAen sarreretan irteeretan baino. Eta bi laginetan detektatzen diren kasuetan, ikusi da kontzentrazioa nabarmen murriztu dela.

Azpimarratu nahi dugu, halaber, ibilgura isurtzen diren tratatutako uren kontzentrazioak ingurumen-kalitateko arauak azaleko uretarako ezartzen dituzten muge azpitik egon direla beti, nahiz eta arau

horiek ez diren HUA isurketetan aplikatzekoak, eta gehienak kuantifikazio-mugaren azpitik ere egon direla.

Hau da, eta galdera ixteko, araztegiek, substantzia mota horiek tratatzeko diseinatuta egon gabe eta aurreko legerian kontuan hartu gabe egonda ere, haien presentzia murrizteko gai dira: instalazioetara sartzen den urak karga handiagoa

darama behin arazketa-prozesua egindakoan interakoak daramana baino.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko otsailaren 25ean

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

11-25/PES-00051. Galdera, tutoretzapeko zentroetan dagoen sei urtetik beheitiko haur-kopuruari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak tutoretzapeko zentroetan dagoen sei urtetik beheitiko haur-kopuruari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 14ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-25/PES-00051):

• 6 urtetik beheitiko zenbat ume dago gaur egun tutoretzapeko zentro batean?

Familian hartutako adingabeak.

2020	2021	2022	2023	2024
268	282	282	284	300

Beste familia batzuetako harrera.

2020	2021	2022	2023	2024
98	118	137	136	147

Adingabeak larrialdiko familietan.

2020	2021	2022	2023	2024
11	21	23	16	28

Hautzaroaren, Nerabezaroaren eta Familiaren Zuzendariordetzak Familia Harrerako Plan Berariazkoa egingen du 2025ean zehar, sentsibilizazioko, hartzeko, aurretiko informazioko, interesa mantentzeko eta familia berriei prestakuntza emateko jarduketak jasoko dituen.

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialak, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguak kontseilariak horri buruz ematen duen informazioa:

Behaketa eta harrera egiteko zentroan sei urtetik beheitiko lau neska-mutil daude. Horietako bat beste harrera familia batera eramana izateko zain dago. Familia esleituta du jada. Beste hiru neska-mutilak familia-harrerarako eskaera aurkeztu duen familia zabalaren balorazio prozesuan daude.

Trantsizioa egiteko pisuan bi haur daude, familiarekin bat egiteko prozesuan. Otsailean egingen da.

Tuterako egoitza-zentroei dagokienez, anai-arrebekin bizi den sei urteko ume bat dago.

Beraz, entitate publikoaren mendeko zentro batean dauden zazpi neska-mutiletatik sei familia zabaletara nahiz beste familia batzuetara joateko zain daude, eta bat anai-arrebekin bizi da.

Familia harrerarako baliabidearen hazkunderen datuei dagokienez (2020-2024), haxe adierazten da:

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 4an

Eskubide Sozialak, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguak kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-25/PES-00052. Galdera, itunpeko irakaskuntzaren sektorearekin 2024-2026 aldirako sinatutako akordioari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaier andreak itunpeko irakaskuntzaren sektorearekin 2024-2026 aldirako sinatutako akordioari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 14ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25/PES 00052 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

2024ko irailaren 4an akordio bat sinatu zen hezkuntzaren sektorean osotara edo hein batean funts publikoekin aritzen diren irakaskuntza pribatuko enpresen VIII. Hitzarmen Kolektiboak ukitutako irakaskuntza itunduaren sektorearekin eta, halaber, Nafarroako ikastolekin.

Akordio hori sektoreko patronalek (ANEG, CECE eta FEDAES) eta sindikatuek (CCOO, SEPNA-FSIE eta UGT) sinatu zuten.

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako galderei dagokionez, hauxe jakinarazten da:

1. Akordioaren hamabigarren apartatuan jasotako Jarraipen Batzordeak izandako bilerei dagokionez, jakinarazten da ezen, hezkuntza itunduaren sektoreko patronalek eta sindikatuek izenpetutako akordioa denez, Jarraipen Batzordea berori sinatu dutenek osatzen dutela, ez Hezkuntza Departamentuak; izan ere, Nafarroako Gobernuaren baimenarekin, akordioa aplikatzeaz arduratzen da.

2. Apartatu berean jasotako Hezkuntza Departamentuaren eta akordioa sinatu zuten patronalen eta sindikatuen arteko bilera informatiboak direla-eta, jakinarazten da bilera bat egin zela eragile horien artean 2024ko abenduaren 17an, hezkuntza itundu-pribatuaren sektorearen bilakaera jorratzeko, akordioak adierazten duenarekin bat. Bilera horretan ez zen konpromisorik hartu.

3. Galderaren bidez EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak jakin nahi du zer eragin izan duen abenduaren 23ko 11/2024 Dekretuak errelebo-kontraturako eskubidea duten pertsonen errelebo-kontratua bermatzeari begira.

Horren harira gogorarazi behar da hezkuntza itunduarekin izenpetutako akordioak erretiro partzialari eta errelebo-kontratuari buruzko apartatuan honako hau ezartzen duela: "Akordio honen indarraldian zehar gertatuz gero arau-aldaketak, ondorio dutenak Hezkuntza Departamentuarentzat kostua areagotzea, edo erretiro partzial aurreratua hartzeko eta/edo errelebo-kontratua sinatzeko baldintzen aldaketa, alderdiek akordio bat erdietsi beharko dute honako Akordio hau egoera berrietara egokitzeko, Oinarri-akordioan aipatzen den aurrekontu-erabilgarritasuna errespetatuz betiere".

Alderdi horren inguruko araudiak 2025eko apirilaren 1ean hartuko du indarra; beraz, Hezkuntza Departamentua akordioaren aldaketa beharrezkoa ari da analizatzen une honetan, baita ere hezkuntza itunduaren sektorean duen eragina.

4. 2024ko irailaren 1etik 2026ko abuztuaren 31ra bitarteko aldirako hezkuntza itunduaren sektorearen akordioari buruzko galdera dela-eta, 8.1 puntuan adierazten denez, "Hezkuntza Departamentuak irakasleen prestakuntza faboratuko du: irakasleek parte hartzen ahalko dute Departamentuak Irakasleendako Prestakuntza Planaren barmean antolatzen dituen ikastaroetan, irakaskuntza publikoko irakasleen baldintza beretan".

Egoera hori ikusita, Hezkuntza Departamentuak irizpide berria jakinarazi zien Irakasleei Laguntzeko bost Zentroetako zuzendaritzeari, prestakuntza irekiko jardueretan irakasleak onartzeari dagokionez.

Halaber, jakinarazten da irakasleen izen-ematek prestakuntza jarduera baterako eskainitako plaza kopurua gainditzen dutenean, hizlariarekin adostuko dela prestakuntza jardueraren beste edizioarik egin behar den izena emandako irakasle guztien eskaria asetze aldera.

5. 2024-2025 ikasturterako irakasleak birkokatzeak akordioari dagokionez, CECE eta NIE patronalei galdetu zitzaion ea irakasleen birkokatzea egiten zuten; izan ere, nola Maristek hala Irunberriko Ikastolak itunak galtzearen ondorioz galduta-unitateak zituzten, eta zentro biak ordezkutzen

dituzten patronalek adierazi zuten ez zutela joko akordioan jasotako birkokatzero ikasturte honetarako.

2025-2026 ikasturterako aurreikuspenaren harira, une honetan ezin da inolako aurreikuspenik

egin Departamentuak datuak izan artean irakasle-en matrikulari buruz eta itunen aldaketari buruz.

Iruñean, 2025eko otsailaren 20an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00053. Galdera, Nafarroako Gobernu Irekiaren atarian euskara zuzen erabiltzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Nafarroako Gobernu Irekiaren atarian euskara zuzen erabiltzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 14ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 3an


Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00053); horren bidez, honako informazio hau eskatzen dio Nafarroako Gobernuari:

Zioen azalpena

Berriki Hizkuntz Eskubideen Behatokiko bulegotik ekarpen bat egin dute Nafarroako Gobernu Irekia gunean. Jasotako "euskarazko" erantzuna honako hau izan da:



Zergatik eman da Nafarroako Gobernu Irekia gunetik ulergaitza den erantzun bat?

Egungo partaidetza plataformak ematen duen erantzun automatikoa oker konfiguratuta egotearen ondoriozko akatsa da.

Hartu al dira neurriak erantzun onartezin hori zuzendu eta euskara zuzenean erantzuteko? Zein?

Bai, plataformaren bertsio berria martxan jarriko da eta arazoa konponduta egonen da.

Zein baliabide erabiltzen ditu Nafarroako Gobernu Irekia guneak euskararen erabilera zuzena bermatzeko?

Nafarroako Gobernua honako ekintza hauek ari da gauzatzen:

1- Parte-hartze prozesuen eta dokumentuen itzulpenen kalitatearen koordinazioa bermatzea.

Horretarako lankidetzak estua izatea Euskarabidearekin.

2- Programa zabaltzeko protokolo berriak inplementatzea, efizientzia bermatzeko eta eguneratuta egoteko itzulpenen azken bertsioan.

3- Horrez gain, kode askea eta irekia denez, itzulpenak erabilgarri egonen dira euskara erabili nahi duen edozein erakunde nahiz gobernuren tzako.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 3an

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

11-25/PES-00054. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Ospitalez kanpoko Larrialdi Zerbitzuko anbulantzietako medikuek eta erizainek arrisku-osagarria jasotzeari uzteko arrazoiei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Ospitalez kanpoko Larrialdi Zerbitzuko anbulantzietako medikuek eta erizainek arrisku-osagarria jasotzeari uzteko arrazoiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 14ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako hau jakiteko: “Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko Ospitalez kanpoko Larrialdi Zerbitzuko anbulantzietako medikuek eta erizainek zergatik utzi diote arrisku-osagarria jasotzeari orain dela zenbait hilabete?” (11-25/PES-00054). Hona hemen Nafarroako

Gobernuko Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Oinarrizko Osasun Laguntzan medikuntzako eta erizaintzako plaza batzuen atxikipena aldatu eta honela geratu zen:

Unitate hauetatik:

10001484 OOL: TAFALLAKO LARRIALDIE-TAKO ZERBITZU ARRUNTA

10009593 OOL: NAF. LARR. ZUZ. ETA HILALA BIZIKO LARR. ID. TEK. Unitate honetara:

10009313 OOL: OSASUN GARRAIOAREN UNIT.

Unitate bietan esleitutako langileek % 1eko arrisku osagarria zuten. Unitate berriak ez zuten esleituta arrisku osagarriaren arlo bat ere.

Behin kasua berrikusi ondoren, 204E/2025 Ebazpena eman zen, otsailaren 26koa, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearena, 10009313 unitatea sartzeko duena arrisku taldearen barnean % 1). Horren kopia eranskinean dago.

2025eko maiatzeko nominan langile horiek arrisku osagarri horren ordainsariak jasoko dituzte atzeraeraginez, 2024ko maiatzaren 8a izanik erreferentzia data.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 3an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentari guztien eskura dago Agorako Kudeaketa Parlamentarioa atalean).

11-25/PES-00055. Galdera, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak biriketako minbizia hautemateko Cassandra proiektuan parte hartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak biriketako minbizia hautemateko Cassandra proiektuan parte hartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 14ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako hau jakiteko: “Osasun Departamentuak zer urrats egin du 2023tik hona Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak biriketako minbizia hautemateko Cassandra proiektuan parte hartzeko?” (11-25/PES-0055). Hona Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariaren erantzuna:

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak Cassandra azterlanaren inguruko jarduketaren alderdi nagusiak azaldu ditu:

Nafarroak gonbita jaso zuen azterlan horretan parte hartzeko eta interesa agertu zuen hasieratik proiektuan parte hartzeko.

2023ko ekainaren 27an, azterlanaren koordinatzaileak eskatutako dokumentazioa bidali zitzaion CEIm delakoaren idazkariari, baloratzeko eta Nafarroan onesteko. Erantzuteko, zenbait zalantza metodologiko azaldu zituzten. Dokumentazio

berria urte bereko udaren amaieran jaso zen eta CEICko eta CEImeko plataformara bidali zen. Urrian azterlanaren koordinatzailearen erantzuna jaso zen eta baieztatu zen, Nafarroaz gain, beste bederatzi zentrok eman zutela izena estatu osoan.

2024. urtean, proiektuaren koordinazioak Nafarroari jakinarazi zion ez dutela aurrekonturik esleituta, eta, printzipioz, zentro bakoitzak bideragarritzat jotako “n” aldagaiarekin (zentro eta urte bakoitzeko pazienteen lagin tamaina) hartzen duela parte; argitu zuten, halaber, Oinarrizko Osasun Laguntza parte hartzen hasiko dela behin pazienteekin egiaztatu ondoren zirkuituak funtzionatzen duela ospitalean. Beraz, hasiera batean ospitaleko zerbitzuek hartu behar zituzten pazienteak. Urtarrilaren 31n, CEImak eskatutako erantzunak bidali ziren, aipatutako gaiak argitzeko, eta 2024ko maiatzean Nafarroan inplementatzeko protokolo/zirkuitu proposamena bidali zen zentro koordinatzaileen proposamenetatik egokituta.

Ekainean, proiektuaren koordinatzaileek baieztatu zuten jaso zutela, eta uztailan adierazi zuten Nafarroako proposatutako “n” aldagaia txikia iruditu zitzaizela; beraz, handitu ezean, bertan behera geratuko litzateke Nafarroaren partaidetza azterlanean. Nafarroak koordinatzaileei eskatu zien parte hartzeko gutxienerako “n”-a eman zezatela, eta, 2025ean jadanik, lehen aldiz, esan zuten zentro bakoitzeko 50 paziente izan behar zirela.

Koordinatzaileek proposatutako gutxienerako “n” horren berri izan ondoren, zirkuituan 50 paziente horiekin sortutako jarduera bolumena aztertu da (bereziki erradiologiako probak egiteari dagokionez), bai eta bost urterako inpaktua ere. Analisi hori egin ondoren, eskuragarri dauden baliabideekin eta aurrekontuarekin, jotzen da nekez jasaten

ahal dela inpaktu ekonomikoa, eta, oraingoz, alternatibak aztertzen jarraitzen da. Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamendua-ren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 3an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00056. Galdera, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean jasotako zenbait jarduketa betetzeko epeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean jasotako zenbait jarduketa betetzeko epeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 14ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak galdera egin du idatziz –202500786 intera zenbakia du Nafarroako Parlamentuan– (11-25/PES-00056). Hona Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

1.- Zer epetan aurreikusten da beteko direla MRR funtsekin finantzatu eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planean jasotzen diren honako jarduketa hauek?

Kudeaketa Jarduketaren IDa	Kudeaketaren Kudeaketaren IZENA	
ID053	UNICO programa- Eraikinak (telekomunikazio azpiegiturak hobetzeko ekintzak)	Jarduketa EAOk eskatu du GOIDLari aurre egiteko laguntza emateko SEEPan xede horretarako sortzen ari den elkartasun proiektu berriaren barruan. Oraingoz ez da GOIDLirako 32. osagaia sortu, baina badirudi SEEParen hurrengo eguneraketan egingen dela. Nafarroak jarduketa honen bidez lagunduko du GOIDLaren eraginak arintzen SEM funtsen babesean sortutako elkartasun proiektu horren barnean.
ID124	Data La ke sanitario	466a CIDaren arabera, epea 2025/4H da
ID126	ACD Nafarroa Destinoak 2022. ACD Nafarroa eta bere paisaia enogastronomikoak	Gardentasunean jadanik dago adierazita aurreikusitako epea: 2026/2H
ID135	Turismo enpresen energia efizientziako eta ekonomia zirkularreko proiektuetarako 2023ko finantzaketa	227 CIDaren arabera, epea 2026/2H da
ID139	Turismoaren jasangarritasun sozialerako planak	221 CIDaren arabera, epea 2026/2H da

ID140	Turismoaren sektoreko gaitasun digitalen planak	292a CIDaren arabera, epea 2026/2H da
ID141	URAREN ZIKLOAREN DIGITALIZAZIOKO ESEPEAREN BIGARREN BANAKETA	430 CIDaren arabera, epea 2026/2H da
ID143	Zorro genomikoaren katalogoa handitzea (GenES)	Gardentasunean jadanik dago adierazita aurreikusitako epea: 2026/2H
ID145	Arreta Digital Pertsonalizatua (ADP)	Gardentasunean jadanik dago adierazita aurreikusitako epea: 2026/2H
ID146	Eskualde despopulatuetan jardura fisikoa eta osasuna sustatzea. PAFER sarea	2025/4H
ID147	Kirolaren sektorea digitalizatzeko plana	370 CIDaren arabera, epea 2025/3H da
ID148	Zorro genomikoa handitzea. Informazio sistema (SiGenES)	Gardentasunean jadanik dago adierazita aurreikusitako epea: 2026/2H
ID149	Gaixotasun arraroak eta AEA dituzten pazienteen osasun arreta hobetzeko inbertsioak	Gardentasunean jadanik dago adierazita aurreikusitako epea: 2026/2H
ID151	Guelbenzu jolaslekua egokitzea (Iruña)	2025/4H
ID152	Hondakin kudeaketarako digitalizazio tresnak garatzea	188 CIDaren arabera, epea 2026/2H da
ID153	Iruñerriko ingurumen zentroa Hondakinei buruzko araudia ezartzea	2026/2H

2.- ID119 jarduketak zergatik jarraitzen du finantzaketa esleitu gabe? Azkenik eginen al da?

ID119 eta ID018 lotuta daude, eta gaur egun zain gaude Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioak ID batek bestea xurgatzen duela baieztatu artean.

ID	COFFEE Lokalizadorea		AURREIKUSITAKO FINANTZAKETA SEM, GUZTIRA	BETEBEHARRAK 2022-2024	GASTU AURREIK. 2025-2026
ID018	C04.I03.P01.SII	Ekosistemak lehengoratzeko eta azpiegitura berderako jarduketak (9)	4.725.000	3.017.838	2.698.072
ID119	C04.I03.P03.S06	Ekosistemak lehengoratzeko eta azpiegitura berderako (13) jarduketak (9) Beste jarduketa osagarri batzuk	0	0	0

Hasiera batean, ID018 C04.I03.P01.S11 delakoak 2024-12-31ra bitarteko jarduketak jasotzen zituen. Data hori igarotakoan, jarduketa berberetarako, ID119 C04.I03.P03.S06 sortu zen 2025-01-01az geroztik. Sortu berri denez, zuzkitzeko zain gaude.

3.- ID010 jarduketa egiteko epea beteko al da? Zer epetan uste da lizitatuko eta egingen dela "Industrializazioaren eta Eraikuntzako Robotikaren Zentroa"?

ID	COFFEE Lokalizadorea		AURREIKUSITAKO FINANTZAKETA SEM, GUZTIRA	BETEBEHARRAK 2022-2024	GASTU AURREIK. 2025-2026
ID010	C02.I05.P01.515	PIREP - Industrializazioaren Eraikuntzako Zentroa	1.625.213	0	0

Lan egiten ari gara ID010 jarduketa egiteko epea betetze aldera.

Lizitzatzeko eta eraikitze epeei dagokienez, Industrializazioaren eta Eraikuntzako Errobotikaren erreferentzia Zentro Nazionala - Building & Architecture Institute (BAI) kudeatzeko plana eguneratzen duen Unibertsitateko zuzendari nagusiaren urtarrilaren 14ko 39E/2025 Ebazpenak obra adjudikatzeko lehen aurreikuspen gisa ezartzen du 2025-02-12a, eta obra-bukaerako

ziurtagirirako 2026-09-30a. Horrek ez ditu galarratzen obra egitean sortzen ahal diren beste eguneraketak batzuk.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betetzeko.

Iruñean, 2025eko martxoaren 3an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

11-25/PES-00057. Galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko langileria-planari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaier andreak Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko langileria-planari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 14ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25/PES-00057 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Hezkuntza Departamentuak ikerketa proiektuen deialdi bat kudeatzen du urtero musikako goi-mailako ikasketetako irakasleentzako Nafarroako Foru Komunitatean. Horren bidez, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko irakasleen ikerketa sustatu nahi da, eta motibazioa eman, irakasle-ikertzaileen profila eskuratu dezaten, goi-mailako ikasketen berekia.

Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioari Nafarroako Foru Komunitateko gainerako zentroein aplikatzen zaizkien arau berberak zaizkio aplikatzekoak, baita ere berezko dituen besteak, honako hauek:

– 225/1998 Foru Dekretua (irakasleen lanaldia eta ordutegia).

– 11/2009 Foru Dekretua (oporak, lizentziak eta baimenak).

– 316/2024 Ebazpena (Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren funtzionamendu jarraibidea 2024/2025 ikasturterako).

Edozelan ere, 2024ko abuztuaren 2an, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren zuzendariak bilera izan zuen Hezkuntzako Ikusapen Zerbitzuko eta Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuko ordezkariekin. Bilera horretan Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioak ematen dituen ikasketen espezifikotasuna aitortu zen, eta erabaki zen zentroko zuzendaritzak ordutegi malgutasuneko proposamen bat egiten zuela,

irakaskuntza eta katedradunen gainerako jarduera profesionalak batera egin ahal izateko.

2024ko irailaren 4an, klaustroaren bileran, zuzendariak honela azaldu zuen malgutasuna ezartzeko sistema:

– Baimen horiek emateko baldintzak azaldu ziren:

- Hiru egun jarraian emanen dira gehienez.

- Bi baimen emanen dira gehienez hiruhileko bakoitzeko (sei guztira ikasturtean).

- Berreskuratzeako egutegia behar da (aurrez harremanetan jarri beharko da Ikasketetako Idazkaritzarekin berreskuratzeako erabiltzen ahal den espazioa eskatu eta konfirmatzeko).

- Gutxienez ere hamar egun lehenago eskatu ko dira.

- Berreskuratzea aldaketa baino lehen nahiz geroago egiten ahalko da; alabaina, hurrengo baimena eskatu baino lehen aurrekoaren denbora berreskuratu beharko da.

- Berreskuratzea ez da bat etorriko irakaslearen ohiko ordutegiarekin.

- Ez dira eskatzen ahalko azterketen, GRALen eta sarrera-proben asteetan.

– Eskaera bakoitza, edozelan ere, zuzendaritzari jakinaraziko zaio eta kasu bakoitza aztertuko da.

– Klaustroaren zalantza batzuen harira, argitu behar da ez direla hamazortzi egun ikasturte bakoitzeko, baizik eta bi baimen hiruhilekoan, egun batetik hirura bitartekoak. Argitu zen, halaber, berreskuratzeako egutegirako ez direla beharrezkoak izanen ikasleen sinadurak; hala ere, berreskuratzeak egiaztatuko dira. Halaber, azaldu zen arlo barnean ikasgai jakin batzuk berreskuratzeako laguntza ematen ahal dela lankideen artean, betiere ez badu talka egiten norberaren ordutegiarekin.

Une horretatik, katedradunek noizean behin ordutegia aldatzeko baimenak eskatu dituzte, zuzendaritza taldeak egindako paperezko inprimaki bat erabiliz. Zuzendariak bidalitako txostenaren arabera, 2024ko irailetik abendura bitarteko aldiari dagokionez, 36 ordutegi aldaketa eskatu ziren, guztira 87 egun irakasle barik, eta zuzendaritzak

baimenen % 100 eman zuen, horretarako betekizunak bete baitziren.

Izenpetutako hitzarmena ikastegiaren borondatezko egintza da, eta, halakotzat, ezin du galarazi eman behar den hezkuntza zerbitzua.

Irakasleek borondatez hartzen ahal dute parte mugikortasun horietan, eta ikastegiarekiko eta SEPIErekiko hitzarmenak esandakoak arautzen du parte hartze hori.

Zerbitzuaren premiak babesteko, hau da, ikasleek klaseak izan ditzaten, zuzendariak egokitzen jotako neurriak hartzen ditu.

Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko irakasleen prestakuntzari dagokionez, ez dago plan espezifikorik, baizik eta azken urteotan erabili izan den prozedura bat: arteetako eta musikako prestakuntza ematen da Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioak berak eskatuta. Horrela, ikastegiak ase egiten ditu berorrek ikas-

turte hasieran zehazten dituen premiak. Planifikatutako prestakuntza modalitateen artean, ikastegi-ko irakasle-taldeak proposatutako lantaldeak dira nabarmentzekoak, ikerketaren eta interpretazioaren inguruko eduki berritzaileak hartzen baitituzte barnean.

Bestalde, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioaren prestakuntza premia orokorrak (musikaren ingurukoak ez direnak) Iruñeko ILZk proposatutako prestakuntzaren bidez asetzen dira.

Ez dago irakasleak euskalduntzeko planik Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan.

Nafarroan 1/2024 Legea garatzea eta prozesu horretan inplikaturako zentroek parte hartzea Hezkuntza, Lanbide Heziketa eta Kirol Ministerioaren arau garapenaren arabera izanen dira.

Iruñean, 2025eko martxoaren 5ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-25/PES-00058. Galdera, Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioari eta Hezkuntza Departamentuko ikuskaritzari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaier andreak Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioari eta Hezkuntza Departamentuko ikuskaritzari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 14ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25/PES-00058 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak haxe ezartzen du 148. artikuluan: “Hezkuntzako ikuskaritza hezkuntza-sistemaren elementu eta alderdi guztietan egingo da, irakasteko eta ikasteko prozesuetan parte hartzen duten guztien eskubideen bermea eta legeen eta betebeharren betetzea, hezkuntza-sistemaren hobekuntza eta irakaskuntzaren kalitatea eta ekitatea ziurtatzeko”. Hezkuntza sistemak aipatutako legean araututako irakaskuntza guztiak jasotzen ditu, horien artean goi-mailako arte irakaskuntzak.

Lege horretan, halaber, 151. artikulutik 154. artikulura bitarte, hezkuntzako ikuskapenaren zereginak eta eskudantziak daude jasota, baita ere zeregin eta eskudantzia horien subjektuak, hau da, Hezkuntzako ikuskatzaileen kidegoko funtzionario publikoak. Horretara sartzeko bigarren hautapen prozesu bat gainditu behar da, aurrez beste irakasleen kidego bateko funtzionario izan behar baita, aipatutako zereginak eta eskudantziak egikaritu ahal izateko.

“Hezkuntzako ikuskaritzaren antolamendua” deritzon 154. artikulua haxe ezartzen du: “Hezkuntza-administrazioek arautuko dute hezkuntzako ikuskaritza dagokion lurralde-eremuan betetzeko ezartzen dituzten organoen egitura eta funtzionamendua”. Aipatutako artikulua oinarri, Nafarroako Foru Komunitateak 80/2008 Foru Dekretua dauka, ekainaren 30ekoa, antolamenduzko eta funtzionamenduzko egitura hori arautzen duena.

Foru Dekretu horren 8. artikulua ezartzen duenez, “Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua hierarkia, lurralde eta espezializazio irizpideak betez antolatzen da. Hezkuntzako Ikuskapenaren lurralde antolaketa ikuskapen zonetan egingen da. Hezkuntzako Ikuskapenaren antolaketa espezializatua lan-eremu zehatzetan egingen da.”

80/2008 Foru Dekretuaren 17. artikulua ezartzen duenez, “Hezkuntzako ikuskatzaileen lana unibertsitatekoa ez den hezkuntza sistema osatzen duten irakaskuntza eta maila ezberdinetan egingen da.” Horrez gainera, “Ikuskatzaileen trebakuntza” deritzon 20. artikuluan azaltzen duenez, “Etengabeko trebakuntza ikuskapenari lotuta egonen da eta ikuskapen eginkizun guztiak hobeki garatzen lagundu behar du. Hezkuntza Departamentuak eskaintza nahikoa bermatzen duten trebakuntza planak ezarriko ditu.” Hori horrela, ikasturte bakoitzean, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak trebakuntza plana ezartzen du, jarduerak holistikoak biltzen dituena zerbitzu osoaren trebakuntza, baita erantzuna emateko ere ikuskatzaile bakoitzak adierazitako banakako premiei.

Iruñean, 2025eko martxoaren 5ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-25/PES-00059. Galdera, Nasuvinsaren ekimenez Burlatan abiarazitako etxebizitzaren prozedurei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mikel Zabaleta Aramendia jaunak Nasuvinsaren ekimenez Burlatan abiarazitako etxebizitzaren prozedurei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 14ko 16. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 3an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mikel Zabaleta Aramendia jaunak idatzizko galdera egin du (11-25/PES-00059). Hona hemen Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariak horretaz ematen dion informazioa:

Nasuvinsak bi utzarazpen prozesu hasi ditu sozietate publiko horrek berak kudeatutako errentamendu araubideko etxebizitza banatan, Burlatan.

Lehen kasua orain ari da izapidetzen, eta Alokairuen Poltsari lagatako etxebizitza partikular bati dagokio. Errentamendu-kontratuaren titularrak eta bere garaian bikotekidea zena (bizilagun gisa agertzen zen) bizi izan dira bertan. Lagapen kontratua amaitzean, jabeak etxebizitza berreskuratzeko eskatu zuen.

Maizterra Nasuvinsak kudeatutako beste etxebizitza batera joan zen, baina bikotekide ohiak jarraitzen du lehengo etxebizitzan bizitzen; beraz, ezin zaio jabeari itzuli.

2024-12-19an izandako adiskidetze-ekitaldian okupatzaileari jakinarazi zitzaion etxebizitza babes-tuaren adjudikazioa Eskatzaileen Errolda bidez egiten dela, eta ez dagoela bizitegi alternatibarik izen

emandako guztien arteko baremo bidezko prozedura horretaz gain. Horrez gain, etxebizitza uztera behartu zuten.

Burlatako bigarren utzarazpen prozedura Nasuvinsaren parke berekiaren etxebizitza batena da. Horren maizterrak zor handia pilatu du errentak ez ordaintzeagatik eta ordainketa konpromisoak ez betetzeagatik.

Errentamendu kontratuaren bost urteetan eta emandako urtebeteko luzapenean zehar, Nasuvinsa zenbait aldiz saiatu zen egoera berronertzeko, Nasuvinsaren talde sozialaren laguntzarekin, zorra ordaintzeko banakapena eginez. Izenpetutako ordainketa konpromisoa betetzen ez zuela ikusita, errentamendu kontratua amaitutakoan, adiskidetzeko ekitaldi bat egin zen 2024ko abenduaren 11n, eta Nasuvinsak etxebizitzaren giltzak itzultzeko eskatu zuen jabetza berreskuratzeko aldera.

Zehaztu behar da ordainketok ez egiteko arrazoiak ez zela izan diru-sarrerarik eza, baizik eta maizterren borondatea. Errentamendu kontratuaren titularrak Nasuvinsak haren ahalmen ekonomikoari egokituta eskaintutako ordainketa plana sinatu zuen, eta gerora ez zuen bete. Errentari horren jarrera konparaziozko bidegabekeria da egoera ekonomiko antzekoan edota gizarte laguntzak jaso bitartean adostutako errenta ordainketak bete egiten dituzten beste maizter batzuen jarreraren aldean.

Utzarazpen prozedura hori bertan behera utzi da zaurgarritasunagatik 2025eko maiatzera bitarte.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 3an

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

11-25/PES-00060. Galdera, Nafarroako Ubidearen 1. fasean handitutako eremuko alderdi ureztagarriko eremu osagarriak ureztatzeko aurreikusten diren datei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak Nafarroako Ubidearen 1. fasean handitutako eremuko alderdi ureztagarriko eremu osagarriak ureztatzeko aurreikusten diren datei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko otsailaren 21eko 20. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko martxoaren 11n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du honako hau jakiteko: “Gobernuak noiz aurreikusten du hasiko direla ureztatzen Nafarroako Ubidearen 1. fasearen zabalpenaren eremu ureztagarriko eremu osagarriak, Nafarroako Foru Komunitateko Ureztatze Planeko jarduketan zerrendan sartu zirenak?” (11-25/PES00060).

Hona hemen Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilariak horretaz ematen duen informazioa:

Egaren adarreko azpiegitura hidraulikoa berehala amaituko da eraikitzen, eta, horrekin, Nafarroako Ubidearen 1. fasearen zabalpenaren azpiegitura hidrauliko nagusia amaituta eta erabiltzeko prest egonen da.

Urrats garrantzitsua da Nafarroako Ubidearen 1. fasearen zabalpenaren zona osagarriak ureztatzeko aurrera egin ahal izateko.

Lan egiten ari gara zona osagarri horiek egikaritzeko behar diren administrazio-izapideetan. Une honetan ez dago data zehatzik, izapide asko ez baitaude Nafarroako Gobernuaren esku.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko martxoaren 11n

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

